


Next Generation Euskal Autonomia Erkidegoan

Eraldaketaren norabidea finkatuz

ehbildu





A large, abstract, geometric image on the left side of the page. It features a dark teal and blue background with a large, light-colored, angular shape that resembles a stylized 'E' or a series of overlapping planes. The image has a bokeh effect with out-of-focus light spots in shades of green and blue.

0. Sar hitza	4
1. Zer dago jokoan?	5
2. Eraldaketaren norabidea	7
2.1. Eredu ekonomikoaren berrikuspena	7
2.2. Ikuspegi sistemiko berria	8
3. Eraldaketa norabidetzeko inbertsio estrategikoa	10
3.1. Oinarrizko printzipioak	10
3.2. Egitasmo estrategikoak	10
A. Trantsizio ekologikoa	11
B. Trantsizio digitala	13
C. Erresilientzia sozial eta ekonomikoa	16
4. Euskadi Next programaren analisi kritikoa	22
4.1. Konponentez konponente	24
5. Adostasun baterako proposamena	27
6. Azken hitza	32
Eranskina: Adostasun baterako egitasmoen taula	33



0. Sar hitza

Akats estrategikoa da Next Generation-EU (NG) funtsen gaineko taxuzko eztabaidarik ez egitea, hartarako foro instituzionalik ez baimentzea. Arazo bat dugu baitezpadako eraldaketaren zentzuari eta norabideari buruzko goi mailako eztabaida politikoari ateak ixten bazaizkio halako momentu historikoan.

Garaiz gaude oraindik ordea. Eusko Jaurlaritzak NG funtsetara aurkezteko egindako proposamenak publikoak direlarik eta baita EH Bildurenak ere, dei egiten diogu, beste behin, Iñigo Urkullu lehendakariari auzolana hitzetatik ekintzetara eraman dezan. Hainbat proiektuen gainean adostasuna erdiestea funtsezkoa baita, eta posible baita. NG funtsetara aurkezteko proiektuen negoziazio prozesuak luze joko du oraindik, eta interes komunak Madrilan zein Bruselan eraginkorki defendatu ahal izateko behar-beharrezkoa izango da, hain zuzen, elkarlana sustatzea.

Halaber, desadostasunen gainean modu publiko eta argian eztabaidatzea, demokratikoa izateaz gain, ezinbestekoa da ezagutza partekatua sortzeko. Inork ez du aurrez aurre ditugun erronkei norbere kabuz aurre egiteko beharrezko ezagutzarik. Horregatik, ezinbestekoak zaizkigu elkarri entzun, diagnosi partekatuak egin eta gizarte-erronka nagusiei soluziobideak bilatzeko foro instituzionalak. Herri-ordezkariei aukera hori ukatzeak defizit demokratiko handi bat jartzen du agerian, baina gainera, gure gaitasun komunitarioak askatzeko behar dugun alderdikerietatik haragoko lidergo politikoa neutralizatzen du. Eta hori, berriz diogu, arazo larria da hamarraldi historiko honen atarian.

Bizi dugun krisi anizkoitzak gaurdaino ekarri gaituen garapen eredia auzitan jartzera behartzen gaitu, eta norabide berri bat hartzera. Iazko udaberrian genioenez, jaiki norabide berri bati ekiteko. NG funtsek berreraikuntzak hartu beharreko norabidea finkatzera behartzen gaituzte, eraldaketa-iparra zehaztera; eta, horrekin batera, ikuspegi sistemiko berri bat hartzera, zeinak sektore publikoaren rola birdefinitu behar duen. Dokumentu hau lehen hurbilpen bat da zentzu horretan.

Dokumentuaren bigarren helburua eraldaketa trankizionatuko duten proiektuak identifikatzea da, NG funtsen onuradun liratekeenak. Hiru atal nagusitan bereizi ditugu: trantsizio ekologikoa, trantsizio digitala eta erresilientzia sozial eta ekonomikoa.

Azkenik, Euskadi Next programaren analisi kritikoa egin eta balizko adostasun baterako aukera emango luketen proiektuen zerrenda bat proposatzen dugu, EH Bilduk proposatutakoak eta Euskadi Nextek jasotakoak erkatu eta balizko adostasun-eremua zein izan ahalko litzatekeen adieraziz.

Bukatu aurretik, Europako Funtsekin hauei ezarri zaizkien baldintzen gainean aritu nahi dugu. Ez dugu onartzen baldintza murriztatzaileak ezartzea aipatutako funtsen trukean. Funtsekin etorkizuneko inbertsio estrategia jasagarria eta eraldatzailea sustatzekoak behar badira izan, ezin onar daiteke baldintzatuta etortzea, are gutxiago eskubideen murrizketek hornitzea. Horregatik, ezin murrizketa ez onartzearekin batera, hauek aplikatuak izan ez daitezen lanari ere eutsi diogu dagoeneko.

Eztabaida aberastu eta adostasun garrantzitsu bat eraikitzeko borondatez eginiko proposamena da honako hau, ez inoren kontra. Arduraz joka dezagun denok, asko dago jokoan eta.



1. Zer dago jokoan?

Aldaketa aroan gaudela diogu, baina aldaketak hain dira handiak eta hain datoz azkar ezen aro-aldaketa baten aurrean gaudela baieztatu dezakegun. Aldagai bakar batek balio digu egoerari neurria hartzeko: klima-larrialdiak. Nazio Batuen IPCC erakundearen hainbat txostenek adierazten dutenez, hasi berri dugun hamarraldi hau da geratzen zaigun denbora-tartea garapen-eredua sakonki eraldatuz klima-aldaketaren ondorio suntsigarriak leuntzeko. Covid-19arekin bizitzen ari garena txiki gelditzen da klima-aldaketa bortitz batek izango litzukeen ondorio ekonomiko eta sozialekin alderatuz gero. Gainean dugun krisi sanitarioak begiak zabaltzeko balio beharko liguke, beranduegi erreakzionatzearen ondorio larriez jabetzeko, eta euskal erakundeak eraldaketa sakon baten gidaritza-lanetarako prestatzeko.

Green New Deal ekimena abiatu du Europar Batasunak, Parisko Itunari jarraiki, 2050. urterako Europa kontinente klimatikoki neutroa bilakatu asmoz. Halaber, helburu hori erdiesteko 2030erako Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurketa %55 murriztea erabaki du 1990eko mailarekiko. Sakon-sakoneko eraldaketa material eta kultural baten aurrean gaude, denboran atzerazina dena.

Klima-larrialdiarekin batera, desberdintasun sozialen gorakada da globalizazio kapitalistaren bigarren porrot handia. Thomas Piketty ekonomialari frantziarrak errentaren eta aberastasunaren metaketari buruz egindako azterketa sakonak ebidentzia enpiriko ugari eskaintzen ditu, agerian jarritz desberdintasunak hazten ari direla, duela 200 urteko mailetaraino.

Hain zuzen, babes sozialeko sistema izan da euskal autogobernuaren ikur nagusia. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) bezalako tresnak barnebiltzen dituen gizarte-ongizateko sareari esker, Estatuko beste leku batzuetan baino gizarte-berdintasun handiagoa lortu da. Hala izanik ere, gaur egun, euskal gizarte-babeseko sistema ez da gai bizi- eta lan-baldintzen prekarizazio prozesuei aurre egin eta gizarte-dualizazioa eteteko. Eusko Jaurlaritzaren txostenen eta Caritas bezalako gobernu kanpoko erakundeek egindako beste batzuen arabera, haustura bat gertatzen ari da gizartearen oinarrian, eta horrek gizarte-kohesioa mehatxatzen du.

Krisi laukoitz baten aurrean gaude beraz, sanitarioa, ekonomikoa, soziala eta ekologikoa dena, zibilizazio krisi bat askatzeko potentziala duen momentu historiko singularrean. Eta badira, gutxienez, hiru megafaktore aintzat hartu beharrekoak:

Biztanleriaren zahartzearen ondoriozko desoreka demografikoa da azpimarra merezi duen lehena, zaintza lanen areagotzea baitakar eskutik, besteak beste. Zaintza lanak kolektibizatu eta duintzea izango da, hain zuzen, gizarte honek etorkizunean izango duen erronka nagusietako bat.

Migrazio-fluxuak dira beste baldintzapen handietako bat. Orain arteko prospekzio guztien arabera, gerratik, pobreziatik eta klima-aldaketaren ondorioetatik ihesi etorriko den jende-uholdea etengabea izango da datozen urteetan. Krisi humanitarioa bizi dugu, Europar Batasunaren proiektu politikoaren gabeziak eta kontraesanak



agerian jarri dituen. Gurea bezalako gizarte mendebaldarrak inoiz baino askotarikoagoak izango dira kulturalki datozen urteetan, eta horrek erronka konplexua jartzen du mahai gainean: nola kudeatu demokratikoki aniztasun kultural hori guztia kohesio soziala indartze bidean.

Digitalizazioa da hirugarren faktorea. Disrupzio teknologiko baten atarian gaude: 5G sarearen hedapena, Internet of Things, bioteknologia, Big Data, Adimen Artifiziala (AA) eta Blockchain bezalako teknologien garapenak ia imajinatu ere ezin ditzakegun aldaketak eragingo ditu bizitzako esparru guztietan: lantegian, etxean, eskolan eta abar. Teknologia hauek guztiek arriskuak dakartzate beraiekin, baina, era berean, aurrez aurre ditugun erronka sozialen zerbitzura jarriz gero, gizartea ahaldundu eta harreman ekonomiko justuagoak sortzeko aukera berriak ere ireki ditzakete.

Hamarraldi honetan hartzen diren eta hartzen ez diren erabakiek goitik behera baldintzatuko dute ondorengo belaunaldien ongizatea. Eta NG funtsetatik eratorritako inbertsio estrategikoak definituko du, neurri handian, hurrengo hamarraldiko garapen ekonomiko eta sozialaren norabidea. Azpimarratu dugu honezkero datozen urteak zeinen diren erabakigarriak termino zibilizatorioetan; eta, esan behar da, baita ere, etorkizun hurbileko lehiakortasun estandarretara iristeko trantsizio ekologiko eta digitala bizkortu beste aukerarik ez dagoela. Iraungi den garapen ereduarekin tematzea (hala nola gasa erauzteko apustuarekin edota abiadura handiko trenaren eraikuntzarekin segitzea) lasta izango da etorkizun hurbilean euskal ehun produktiboaren lehiakortasunerako.

Berreraikuntzak eraldaketa esan nahi du, eta ezin du gehiago itxaron. NG funtsek eraldaketa(n)aren norabidea finkatu behar dute. Jokoa dagoena gehiegi baita arinkeriaz eta arduragabe jokatzeko.



2. Eraldaketa nora bidean

“The man in the moon”, horrela definitu du Europar Batasunak berak 2050 baino lehen karbono neutraltasuna erdietsi asmo duen misio zibilizatorioa, Kennedyk 1961ean iragarritako “moonshoot” hari erreferentzia egiten dion epigrafe iradokitzailea. Trantsizio ekologikoaren erronka kolosalari neurria har diezaiozun: kontua ez da soilik karbono neutraltasuna ahalik eta lasterren erdiestea (zeina itzelezko erronka den berez), baizik eta, horrez gain, trantsizioak sozialki justua izan beharko du krisialdi soziala eutsiezin bilakatuko ez bada.

Eraldaketa korrante hori nola euskalerriratu den ebatziko da datozen hilabete eta urteetan; edo, nahi bada, nola kokatuko den geure herria eraldaketa marko horretan. Horregatik, herri-narratiba ezin daiteke ekonomia berrakibatutako eta enplegua sortzera mugatu, harago joan behar du. Belaunaldi berrientzat inspirazio iturri izango den eraldaketa-ipar bat behar dugu, geure energia komunitarioak aktibatu eta kultura politiko berri bat gorpuzten lagunduko duena. Halaxe laburbilduko genuke: Europar Batasunaren sozial gutxiengoen duen herrialde klimatikoki neutroa izan nahi dugu, horretarako zero isurketa garbiko ekonomia zirkular batek bultzatuta.

2.1. Eredu ekonomikoaren berrikuspena

Parisko Itunak jasotako helburuak beteko badira (eta kontrakoa katastrofikoak litzateke termino zibilizatorioetan), eraldaketa sozial eta ekonomiko handi bat gertatu beharko da. Lehenago esan dugunez, Europar Batasunak eraldaketa horren oinarriak 2030erako finkatuta eta garabidean behar dutela erabaki berri du, eta hori BEGen %55eko murrizketarekin lotu du (1990eko mailarekiko). Gaurdaino ekarri gaituen paradigma ekonomikoa auzitan jarri beste aukerarik ez dago, azken hamarraldietan garatu den eredu ekonomikoa ez baita gai misio hori bururatzeko.

Mariana Mazzucato, ekonomialari ezagunak eta Ikerketa eta Garapenerako Komisarioaren kanpo aholkularia denak azaltzen duenez:

“Eguno eredu kapitalistak merkatuaren akatsak konpontzeko zeregin inozoa uzten dio sektore publikoari, eta hori beranduegi eta gutxiegi gertatzen da ia beti.

Sektore publiko handinahiago bat behar dugu, egungo sistema ekonomikoa aldatzeko gai izango dena. Aldaketa horiek egiteko, lehenik eta behin, sektore guztiak (publikoa eta pribatua) katalizatu behar dira, elkarlanean egin dezaten beste eredu ekonomiko bateranzko bidea. Sektore publiko handinahiago bat behar dugu, sistema kapitalista aldatzearen aldekoa.

Aldaketa erradikal horiek ikuspegi berri bat eskatzen dute, misioa, Kennedyk 1961ean iragarri zuen “moonshoot”aren ildotik. Europar Batasunak jaso du jada ideia hori, eta lanean ari da Garapen Iraunkorrerako

Helburuak (GIH) erdietsi eta klima-larrialdiari aurre egiteko beharrezkoak diren ekonomia, gizarte eta narratiben eraldaketa sistemikoaren erronkari helduko dioten misioak zeintzuk izango diren definitzen”.

Momentuaren kontzientzia hartu eta koherentzia jarduteak orain artean garatu diren politika publikoen balorazio kritikoa egitea eskatzen du halaber, azken urte luzeetan giza garapen iraunkorraren oinarriko logiken kontrako politikak egin baitira Erkidego Autonomoan: Gas sektorearen aldeko apustua eta energia berriztagarrien garapen eza, onura sozial urriko azpiegitura handien eraikuntza, lurraldean errotutako sektore teknologikoaren galera, zerbitzu publikoen ahultzea, industria politika aktiborik eza, ikerketa eta berrikuntzan atzerakada, hiri-hondakinen kudeaketari dagokionez ekonomia zirkularra 30 urterako hipotekatzen duen errauskailuaren eraikuntza, industria hondakinen kudeaketaren pribatizazioa, gizarte-zerbitzuen sistema zaintzaren krisiaren arora egokitzeko plangintza eta inbertsiorik eza eta abar.

Egin ahal daiteke, adibidez, trantsizio digitalaren inguruko proposamen estrategikorik iragan hurbilean Euskaltekin gertatu dena baloratu gabe? Izan ere, Euskaltekin egin dena herri-interesen kontrako politika neoliberalaren adibide argia da, ezin uka baitaiteke gaur banda zabaleko azpiegitura publikoa bagenu posizio hobean geundekela herri gisa trantsizio digitalari eusteko. Edo, ez al da iritsi Abiadura Handiko Trenari moratoria ezartzeko garaia? Ez al dago prospektiba nahikorik, gutxien-gutxienik, azpiegitura honen onura soziala zalantzan jartzeko?

Europako esperientzia aurreratuenen ispiluan begiratu eta trantsizio ekologiko eta digitala geure herria modernizatu eta demokratizatzeko aukera gisa ulertu behar ditugu; eta horretarako funtsezkoa da lehentasunak birdefinitzea, ikuspegi publikotik gizarte-ongizateari balioa zerk ematen dion aztertu eta baliabideak hartara bideratzea, urritasun larriko egoera ekonomiko honek eskatzen duen kudeaketa eraginkorra eta efizienteena eginez. Baliabide ekonomiko urriko garaian baikaude eta hala egongo baikara aurrerantz ere; eta, aldi berean, erronka ekonomiko eta sozial kolosalak izango ditugu parez pare.

2.2. Ikuspegi sistemiko berria

Mariana Mazzucatorek hitzak birgogoratuz: “Egungo eredu kapitalistak merkatuaren akatsak konpontzeko zeregin inozoa uzten dio sektore publikoari, eta hori beranduegi eta gutxiegi gertatzen da ia beti”. Sektore publikoaren funtzioa ez da ingurune-baldintzak sortzea ondoren kapital pribatuak behar sozialei “erantzun” ahal diezaion. Ez, eredu hori desberdintasun sozialen biderkatzaile dela frogatu delako eta amildegiaren ertzeraino ekarri gaituelako termino ekologikoetan. Sektore publikoak rol ekintzaile aktiboa izan behar du, eta ekonomian esku hartu eraldaketa-iparraren mesedetan. Izan ere, merkatuaren esku ikusezinen mitoia erori egin da: merkatua ez da gai bere kabuz garaiko erronka sozialei erantzun baikorrik emateko.

Sektore publikoaren ardura ezin daiteke ordezkatu enpresa multinazional jakin batzuei protagonismo erabakigarria eta erabakitzailea emanaz garapen ekonomikoan. Lankidetzat publiko-pribatuaren aldekoak gara, jakina, baina hori ez da erakunde publikoek gaur egun merkatuan errentagarriak ez diren teknologien garapena finantzatzea errentagarri bilakatzen direnean irabaziak akziodunen artean banatu daitezkeen. Proiektu estrategiko baten finantzaketa publikoa, ahal dela, kapital sozialean parte hartzearen bidez bideratu behar da, hain zuzen ere, sektore publikoak rol aktiboa eta ekintzailea izan dezan gure ehun produktiboa eraldatzeko estrategikoak diren sektore ekonomikoetan, hala nola, energia sektorean; eta egindako inbertsioak sortzen dituen etekinengatik dagokion itzulkina jaso dezan.

Erakundeek, eta gizarteak oro har, interpelatu egin behar dituzte pandemia betean dibidenduak banatu dituzten multinazionalak: Nazio Batuen Erakundeak GIHetan adierazten duen bezala, ez da nahikoa balio ekonomikoa sortzea, enpresak XXI. mendeko erronka sozialei atxiki behar zaizkie; Erantzukizun Sozial Korporatiboa deritzo. Petronorren kasu konkretuan interpelazioak zera esan nahi du NG funtsei dagokienez: zorrotz bereizi behar dira hamarraldi honetan desahazkunde esponentziala izan behar duen eta 2050 baino lehen iraungi behar den negozioan ari den enpresa baten interes korporatiboa eta erakunde publikoek ordezkatzeko duten interes komuna, zeina den, besteak beste, ahalik eta lasterren erdiestea karbono neutroko ekonomia bat.



Sektore publikoaren rola birdefinitu dugularik, beharrezkoa zaigu kolaborazio publiko-pribatuko ohiko eskemez harago joatea. Hasieran esan dugunez, inork ez du garaiko erronkei norbere kabuz aurre egiteko beharrezko ezagutzarik. Deskarbonizazioa, ekonomia zirkularraren garapena, desoreka demografikoa edota desberdintasun sozialen areagotzearen gisako erronkei aurre egin ahal izateko ezinbestekoa da garapen iraunkorraren hiru dimentsioak (ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena) uztartzen dituzten berrikuntza irekiko ekosistemak eratzea. Ikuspegi sistemiko berri bat da honako hau, garaiko erronka sozialei aurre egiteko ez baita aski proiektu deskonektatuen araberako jarduna, ekintza-molde kolektiboak gorpuzten dituzten estrategia eta ekintzen interkonexioa behar da, misio baten logikara lerratuz instituzioak, eragile ekonomikoak, ezagutzaren eremukoak eta baita gizarte zibileko eragileak ere; eta interkonexio horien eraikuntzan gakoa da erakunde publikoen lidergo ekintzailea. Gobernantza kolaboratiboa ezin daiteke eslogan hutsala izan, praktikan jartzeak iraultza bat eskatzen du egungo instituziogintza moldean.

NG funtsetatik eratorriko den inbertsio publikoak ikuspegi sistemiko hau jaso behar luke hasieratik. Funts hauek, gure baliabide propioei gehituta, eraldaketa prozesu koherente bat artikulatzeko baliatu beharko genituzke, diagnosi partekatuak egiteko espazioak sortuz, lankidetzaren publiko-pribatuko sormen prozesuak eraikiz eta garapen iraunkorraren hiru dimentsioak integratzen dituzten egitasmo interkonektatuak martxan jarritz.

Eraldaketa ren norabidea finkatzeko momentua da.



3. Eraldaketa norabidetzeko inbertsio estrategikoa

3.1. Oinarrizko printzipioak

NG funtsetatik eratorriko den inbertsio estrategikoa eraldaketa-norabide egokia finkatuko badu honako zazpi oinarrizko printzipioak bete behar ditu gure aburuz:

1. **Trantsizioa:** Klima-neutraltasuna eta gizarte-kohesioa erdiesten laguntzea (edo, behintzat, oztoporik ez jartzea), bai eta ekosistemak eta ingurumen kalitatea zaintzen ere, "Do not harm" printzipioa betez. Gutxienez GIH bati lotzea gainontzekoak kaltetu gabe.
2. **Onura soziala:** Sortuko duen onura soziala egiaztatgarria izatea, eskura dauden frogak edo hipotesi onargarrietan oinarritua. Lankidetzaren publiko-privaturako irizpide eta baldintza argiak ezartzea, inbertsio publiko ororen onura soziala bermatu dadin.
3. **Enplegua:** Kalitatezko enplegua sortzea, lan-prekarizazioa alboratuz.
4. **Begirada feminista:** Emakumeek pairatzen duten egiturazko diskriminazio ekonomiko, sozial eta politikoari aurre egitea, bereziki zaintzen antolaketari dagokionez.
5. **Udalekin kooperazioa:** Funtzen %30a udalei bideratzea, beren gaitasun eta ahalmenak indartzeko, lurraldearen kohesioan duten lehentasunezko ardura betetzen dutela ziurtatu dadin.
6. **Lurralde-kohesioa:** Euskal lurraldeen arteko garapena eta kohesioa sustatzea, lurraldeen arteko lankidetzaren posible egiten duten proiektuak lehenetsiz.
7. **Ikuspegi sistemikoa:** Berrikuntza irekiko ekosistemen ikuspegi sistemikoa lehenestea, non administrazioak lidergo ekintzailea garatuko duen.

3.2. Egitasmo estrategikoa

2020ko abenduaren 20an aurkeztu genituen egitasmoak Europar Batzordearen gidalerroak jarraituz osatu dira eta hainbat zuzentarau eta plan estrategikoa hartzen dituzte kontuan; baita Erkidego Autonomoko hainbat lege eta plan estrategikoa ere. Hiru ataletan banatu ditugu, eta gehientsuenak programa moduan planteatu ditugun arren badira tartean proiektu singularrak ere.

Proposatzen dugun ikuspegi sistemiko berria aintzat hartuz, egitasmo inkonexoen arabera jarduna baino ekintza-molde kolektiboak gorpuzten dituzten egitasmo estrategikoa hobetsi ditugu, misioen logikara hurbiltzen gaituztenak, eraldaketa-ipar argi bat marrazten dutenak eta berrikuntza ekosistema koherenteak

eratzeko gaitasuna izan dezaketenak. Ikusmolde honen arabera, indarrak sakabanatu baino hobe da energiak egitasmo traktore sendoetan kontzentratzea, gutxi izanik kopuruz, baina, kooperazioa posible egingo duten ekosistemak artikulatzeko izan dezaketen ahalmenagatik, eraldaketa sistemikoa ekar dezaten.

A. Trantsizio ekologikoa

Trantsizio ekologikoak klima-larrialdiaren zibilizazio erronkari egin beharko dio aurre. Parisko Itunean adostutakoa betetzeko eraldaketa sakona egin behar da, hala energiaren arloan nola garraioan zein elikadura sisteman. Europak aitortu du datozen hamarkadetako erronkarik handiena klimarena dela eta 2050. urtean klima larrialdiari buelta emateko beharrezkoa den karbono neutraltasuna lortzeko plangintza zabala abiatu du. Besteak beste, NG funtsen %37a horretara bideratuko da zuzenean.

Erkidego Autonomoaren egoera bereziki zaurgarria da atal honetan. Europako batz bestekotik gora BEG isurtzen dugu, 1990tik honako isuriaren beherakada testimoniala izan da, berriztagarrien hedapena bereziki baxua da (%9), garraio isuriak isurketa totalen herena dira, kanpoko energia zein baliabideen menpekotasuna dramatiko eta, oro har, azterna ekologikoa oso altua (2,65). Jasangarritasun Energetikoaren Legeak ezarritako helburuak betetzeko inbertsio handiak egin behar dira, eta Europa ezartzen ari den helburuetara heltzeko (BEGen isurketen %55 2030erako 1990 urtearekiko) esfortzu itzela egin behar da.

Trantsizio ekologikoaren ardatz nagusiak honako hauek lirateke Erkidegoan: Berriztagarrien hedapen azkarra, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoan sakontzea, etxebizitzaren eta industria guneen birgaitzea, garraioaren elektrifikazioa, elikadura burujabetzan aurreratzea, hondakinen kudeaketan hobetzea, naturgune babestuen eta biodibertsitatearen aldeko apustua eta abar.

A1: Efizientzia energetikorako programa

4/2019 Euskal Jasangarritasun Energetikoaren Legeen helburu artean dago administrazioen kontsumo energetikoa %35 jaitea 2030. urterako. Helburu hau betetzeko, beharrezkoa da aurrezpen eta efizientzia energetikoan inbertsioak egitea, hala nola argiteria publikoan, kontsumo baxuko tresnerian, kontagailu adimendunetan eta abar.

Euskal udaletan proiektu ugari daude garapen maila desberdinean, baina askok kofinantzazioa behar dute aurrera egiteko. Kolaborazio publiko-publikoaren adibide interesgarritzat jotzen dugu. Programa hau enpresetara eta erabiltzaile partikularretara irits liteke gailu elektriko eraginkorren erosketa kofinantzatzeko erabiliko balitz. Enplegua sustatzeko potentzial handia luke.

A2: Energia berriztagarrien garapen banatua

4/2019 Euskal Jasangarritasun Energetikoaren Legearen helburuen artean dago energia berriztagarrien hedapen azkarra, euskal administrazioen auto-hornidura tasa %32koa izateko 2030. urtean. Helburu hau betetzeko, energia iturri berriztagarri desberdinen garapena beharko litzateke, hala nola, eguzki energia fotoboltaikoa, eguzki energia termikoa, eolikoa, geotermia, biomasa eta abar.

Ehunka udal proiektu daude kofinantzazio zain. Kolaborazio publiko-publikoaren edo publiko-komunitarioaren adibide interesgarritzat jotzen dugu, enplegu sustatzaile ona ere badelako. Energia berriztagarrien garapenaren baitan indar berezia egingo litzateke Komunitate Energetiko Lokalen sustapenean, baita sare elektriko adimendunaren garapenean ere.

A3: Mugikortasun elektriko eta adimendunarako programa

A3.1: Mugikortasun elektrikoa garraiobide guztietan gauzatzeko programa integral bat, besteak beste Erkidegoko 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen helburu nagusietako bat erdiesteko: mugikortasun arrazionalago eta jasangarriagoa. Dagoeneko ez ditugu irudikatzen elektrikoak ez diren trenak edo tranbiak; eta ikuspegi hori autobusetara, autoetara eta beste garraiobideetara ere zabaltzea beharko litzateke, garraioaren bidez BEGen heren bat isurtzen baitira Erkidegoan.

Programa honek abian diren hainbat proiektu zein proiektu berrien bultzada ekarriko luke, eta Euskal PIMEaren (Mugikortasun Elektroaren Plan Integrala) helburu estrategikoak zein ardatz eta ekintza lerroak garatzeko baliatu beharko litzateke.

A3.2: Autogintzaren sektorean balio erantsia hardware-etik software-era igaroko dela jakitun, eta garraio publiko kolektiboaren aldeko apustua biderkatu beharko dela kontuan izanda, mugikortasun adimendunaren aldeko apustu estrategikoa egitea, softwarearen garapen eta berrikuntzarako hurbilen baten sorreraren bidez.

Automozio industriarekin lankidetzan arituko litzatekeen zentroa, teknologia garatuko lukeena, batez ere estandar irekietan oinarritutako eta nazioarteko ereduakiko elkarreragingarria den softwarea. Automozioak ibilgailu konektatuen garapenaren bidetik egin behar du, eta software osagaiak funtsezkoak izango dira horretarako. Software irekien osagaia garatzeko bikaintasunezko zentro bat sortuko litzateke, nazioarteko estandarretan oinarrituta, automozioaren industriarekin, teknologia zentroekin, industria teknologikoarekin, start-upekin eta abarrekin lankidetzan:

- Konektatutako ibilgailua.
- Laguntza bidezko gidatze kooperatiboa.
- Konektagarritasuna.
- Edge computing.
- Pilotajea lurraldeko errepideetan.

A4: Energiaren biltegitratzea: Bateria faktoria

Erkidego Autonomoan garraioaren sektorea da BEGen isurtzaile nagusia. Garraioaren isuriak jaisteko, mugikortasuna murriztu, mugikortasun ez motorizatua sustatu eta mugikortasun elektrikoa bultzatu behar ditugu, arlo publiko zein pribatuan. Autogintza sektorea eraldatze prozesuan dago, motor termikoetatik elektrikoetara bidean. Erkidego Autonomoan, dena alde dugu eraldaketa honetan aurrea hartzeko: autogintza enpresa handiak, enpresa asko autoen balio-kate osoan, Europar mailako baterien ikerketa zentrorik onenetarikoa den CIC Energigune.

Guztia kontutan hartuta, mugikortasun elektrikorako beharrezkoak diren baterien aldeko apustu estrategikoa egitea, kolaborazio publiko-pribatuaren bitartez, euskal lurraldean bateria faktoria bat garatuz.

A5: Ekonomia zirkularra

A5.1: Material kritikoak berreskuratzeko planta. Trantsizio energetikoak duen ahulezia nabarmenena baliabide mineral kritikoekiko menpekotasuna da. Energia berriktarrien hedapenerako, taula periodikoko elementu askotarikoak erabiltzea derrigorrezkoa da, eta material batzuk urriak dira. Gaur egun, baliabide hauek, ia bere osotasunean, inportatuak dira, hala nola kobrea, kobalto eta litioa, eta berreskuratze tasak, kasu gehienetan, oso eskasak dira (litioaren kasuan, adibidez, mundu mailako berreskuratze tasa %1 baino txikiagoa da).

Mugikortasun elektrikoaren bultzadarekin, material hauen erabilpena biderkatuko da, eta funtsezkoa izango da material hauek berreskuratzeko berrikuntza inbertitzea. Erkidego Autonomoan baditugu dagoeneko bideorri hau diseinatzen ari diren ikerketa zentroak. Material kritikoak berreskuratzeko planta bat eraikitzearekin zentro hauek indartzea izango litzateke proiektu honen helburua.

A5.2: Hondakin industriaren kudeaketarako planta. Zaldibarreko hondamendiak agerian utzi du, besteak beste, Erkidego Autonomoan arazo larria dagoela hondakin industrialekin eta hauen kudeaketa ereduarekin. Ikasgaien artean daude, zabor industriaren sailkatze, berreskuratze edo birziklapen maila

igo beharra eta ikuskaritza zorrotzarekin kudeatzeko beharra. Hori dela eta, titularitate publikodun hondakin industrialen kudeaketarako planta baten eraikuntza proposatzen da, europar zuzentzarauak onartutako hondakinen hierarkiarekin bateragarria izango dena.

A6: Industrialde eta lantegi kutsatuen eraberritze programa

Erkidego Autonomoko hiri-lurzoruaren ia %30a jarduera ekonomikoak (industria eta zerbitzuak) garatzeko kalifikatuta dago. Horien artean, industrialde eta lantegi ugari dago abandonatuta eta are hondakin egoeran, eta horietatik asko, kutsatutako lurzoruetan. Estrategia sendoak planifikatu eta gauzatu beharko lirateke industrialde horiek deskontaminatu, eraberritu eta berrerabiltzeko, oraindik urbanizatu gabeko lur gehiago artifizializatzea saihestuz: Industrialde eta lantegi kutsatuen eraberritze-programa bat proposatzen da, Lurzoru Kutsatuen Planari jarraipena eta osagarritasuna emango diona.

Plangintza honetan, amiantoaren eta lindanoaren ondorioz kutsatutako eremuak garbitzeko azpiprograma bereziak garatuko lirateke.

A7: 1960-70eko auzoen eraberritze programa

Lurzoru gehiago urbanizatu ordez beharrezkoa dugu hiri-eraberritze integralak planifikatzea eta gauzatzea, are birdentsifikazioak diseinatzea, jada daukaguna birziklatuz eta berrordenatuz. Ez soilik Erkidegoan dauden ia 70 hirigune historikoetan Eraberritze Integralerako Plan Bereziak eginez; 1960 eta 70eko hamarkadetan eraikitako auzoetan ere jarri beharko litzateke arreta. Etxebizitza-parke eta urbanizazio zaharkituak izateaz gain, auzo horiek beste arazo batzuk ere badituzte: irisgarritasunekoak, energetikoak, kohesio sozialekoak, genero-ikuspegikoak eta abar.

PREE Programa 2020 delakoaren bertsio handinahi bat beharko litzateke, auzoak integralki kontuan hartuko lituzkeena: 1960-70eko hamarkadetako auzoen eraberritze-programa oso bat proposatzen da horretarako.

A8: Ur hornidura eta arazketa

Europar Ur Zuzentzarauak 2015. urterako agintzen zuena betetzeko, Erkidego Autonomoko hainbat udalerrri eta eskualdeetan ur hornidura eta arazketa sisteman inbertsioak egitea proposatzen da. Estatuko zein Erkidegoko plangintza hidrologikoek inbertsio behar hauek zerrendatuak eta kuantifikatuak dituzte. Institutuzio arteko kolaborazio publiko-publiko eskema baten bitartez egin beharko lirateke inbertsio hauek, eta proiektu hauek betetzeko NG funtsen erabilpena ezinbestekoa da, gure ur masen egoera hobetzeko mekanismorik eraginkorrena baita.

A9: Klima aldatetari eta biodibertsitate galerari aurre egiteko programa

Klima aldatetari aurre egiteko, natur guneak kontserbatzeko eta biodibertsitatea babesteko administrazio maila ezberdineko proiektuak garatzea proposatzen da, arreta berezia jarritz udal eta eskualde mailako proiektuetan, basogintza jasangarria eta Natura 2000 sarea garatzeko planetan. Babestutako naturguneen eremuaren barruan dauden herrien suspertze ekonomikorako planak ere finantzatzeko lirateke. Programa hauetan sartuko liratekeen ekimenen markoak lirateke, klima aldatetaren aurkako Klima 2050 estrategia, Euskadiko Biodibertsitatearen Estrategia eta Natura 2000 sarea.

B. Trantsizio digitala

Esan dugunez, disrupzio teknologiko baten atarian gaude, iraultza digital baten hastapenetan zeinak ia imajinatu ere ezin ditzakegun aldatetak eragingo ditu bizitzako esparru guztietan. Teknologia hauek guztiek arriskuak dakartzate beraiekin, baina, era berean, boterea demokratizatu, gizartea ahaldundu eta harreman ekonomiko justuagoak sortzeko aukera berriak ere irekitzen dituzte.

Euskal Erkidegoko azken urteetako bilakaera aztertuta honako ondorio orokor hau ateratzen dugu: ez da estrategia digitalik egon, are gutxiago herri ikuspegikorik. Hori zuzentzeko momentuan gaude orain, hain zuzen, eta NG funtsek inflexio puntu bat markatu behar dute. Zentzu horretan, trantsizio digitala aurrez aurre ditugun gizarte-erronka kolosalen zerbitzura jartzeko desafioa dugu: trantsizio energetikoa, gizarte-inklusioa eta ehun produktiboaren eraldaketa dira horietako hiru.

Honako hauek lirateke estrategia digitalaren ildo nagusiak: Giza eskubide digitalak bermatzea; herri-azpiegitura digitala garatzea; industriaren digitalizazioa; AAren erabilera etiko, seguru eta demokratikoa; talentua erakartzea; euskara eta euskal kultura mundu digitalean zabaltzea; eta identitate digitala garatu eta datuen burujabetza segurtatzea.

B1: Gaikuntza digital unibertsalerako plana

Eten digitalaren aurkako borroka: Herritarren eta administrazio publikoko langileen gaikuntza digitala, software librearen aldeko apustua eginez.

Euskal ikasleek derrigorrezko hezkuntzaren amaieran gaitasun digitala dutela bermatzea. Horretarako, XXI. mendean funtsezkotzat hartutako irakaskuntza digitaleko trebetasunak dituzten irakasleen kopurua handitzea; eta ikastetxeak beharrezko ekipamenduz hornitzea, jada digitalki eraldatu diren eskolen sarea osatuz ikaskuntza prozesua errazteko.

Hezkuntza digitala heziguneak gailu elektronikoz hornitzea baino askoz gehiago da. Irakasle eta ikasleak aro digitalean subjektu kritiko izateko hezi behar dira. Horretarako kompetentzia digitalak eskuratu behar dituzte, erabiltzaile gisa (programa ezberdinak erabiltzen jakin dezaten) zein partehartzaile gisa (pentsamendu konputazionala garatzen lagunduz). Ikaslearen ezaugarrietara eta erritmoetara egokituko den hezkuntza pertsonalizatu digitala beharrezkoa da eta plataforma teknologiko multinazionalen (Google, Microsoft) menpekotasunarekin bukatu behar da software librearen aldeko apustuaren bidez.

Proiektuaren helburua ere bada trantsizio digitalaren erronkari aurre egin behar dioten ekoizpen eta zerbitzu sektoreei sostengua emango liekeen ekintza multzo bat garatzea, batez ere, lanbide heziketaren eta etengabeko prestakuntzaren esparruan; eta, aldi berean, desgaitasuna duten pertsonen enpleagarritasuna hobetzea eta gizarteratzea saiatzea bideratutako gizarte politikak gauzatzea.

Gainera, udalerri guztietan arrakala handiagoa duten herritarrei (adinekoei, migratzaileei) espazio digitalak eman nahi zaizkie, arrakala hori betetzeko ekipoa eta langileak izan ditzaten.

B2: Teknologia aurreratuetan gaikuntza sozialerako proiektua

Herritarrak, oro har, eta biztanleria aktiboa bereziki, gaitzea eta ahalduntzea litzateke egitasmo honen helburua, datuaren subiranotasunaren eta Big Data berrikuntza sozialari begira ematen dituen aukeren inguruan.

Lan eremuari lotutako biztanleria aktiboari gaitasun aurreratu espezifikoak ematea, lehentasuna emanez AAri eta datuen zientziari. Biztanleria aktiboa gaitzea AAk bermatu behar dituen irizpide etikoen, segurtasunaren eta gardentasunaren inguruan, bai eta teknologia horrek garapen inklusibo eta jasangarria eta ongizate kolektiboan izan ditzakeen erabileren inguruan ere.

Proiektu honen bidez AAk gizartearen ekarriko dituen aldaketen gaineko ikerketa egingo lukeen institutu bat sortuko litzateke. Institutu honek lan merkatuan, enpresan, hezkuntzan, osasungintzan eta bizitzaren bestelako eremuetan AAk izango duen eragina aztertuko luke, eta mehatxuak neutralizatu eta aukerak probesteko proposamenak landuko lituzke.

Halaber, STEM diziplenatan ere existitzen den genero arrakala gainditzeko neurriak hartuko lirateke. Ezinbestekoa da diziplina hauetan emakumeen presentzia bermatzea; ez soilik erabiltzailearen ikuspegitik baita garatzaile gisa ere (informatika ingeniariak, telekomunikazio ingeniariak eta abar), garapenetan eta algoritmoetan emakumeen ikuspegia ezinbestekoa delako.

B3: Green Cloud Data Processing Centre

Titulartasun publikoko Datuak Prozesatzeko Zentroa (DPZ) hartuko duen azpiegitura bat sortzea, euskal administrazio guztien, herritarren eta hala nahi duten enpresa pribatuen zerbitzuen eta datuen segurtasuna biltegitatu, kudeatu eta bermatzeko.

Lurraldeko administrazio guztiei, herritarrei eta enpresa pribatuei zerbitzu digital aurreratuak eskaintzeko azpiegitura izango litzateke. Kudeaketan lankidetzak publiko-pribatua ezarriko litzateke, bai eta herritarren datu guztien pribatasuna eta segurtasuna bermatzeko duen eredu ere.

Nafarroan ostatu hartuko lukeen beste DPZ batekin lankidetzan aritzea proposatzen da (ikus Nafarroa 2030 plana). Enpresa pribatuei eta herritar partikularrei ere emango litzaizkieke cloud zerbitzuak. Zerbitzuen eta datuen eskuragarritasun handiko ereduarekin kudeatzeko litzateke eta konektibitate ultraazkarra izango luke Europako eta nazioarteko datu sareekin. Kontsumo jasagarriak bermatzeko litzateke eraginkortasun handiko teknologia erabiliko litzateke.

Frantzia eta Alemaniak abiatu duten GAIA-X plataformaren parte izatea aztertu beharko litzateke.

B4: Software librea eta ezagutza partekatua

Software libreko eta ezagutza partekatuko lankidetzak ekosistema bat sortzea kule helburu egitasmo honek, baliabide digital irekien zentro europarra ere balitzatekeena.

Enpresa teknologikoen arteko lankidetzak sustatzea, ezagutza partekatua hauspotu eta software irekia eta baliabide digital partekatuak sortzeko, administrazioarentzako eta enpresentzako irtenbide eraginkorrak batera sortzeko, batez ere sistema aurreratuak.

Horrela, multinazional handiekiko mendekotasunari aurre egin eta produktu digital aurreratu berriak bertan sortzea sustatzeko litzateke, eta horiei irtenbide irekiak emango dizkien sektore bat sustatzeko litzateke. Horrela, tokiko ezagutza ekosistema ekonomikoa sustatu, eta irtenbide alternatiboak eta sarbide errazekoak sortuko lirateke.

Bultzada publikoa eta lankidetzak estua Euskadiko Software Libreko Enpresen (ESLE) elkartearen enprekin.

B5: Administrazioaren digitalizazioa

Administrazioen eraldaketa digitala (erabateko digitalizazioa) sustatzea eta herritarrentzako zerbitzu publiko aurreratu eta pertsonalizatuak sortzea helburu duen egitasmoa. Horretarako:

- Administrazio publikoaren lidergoa indartzea gizartearen eraldaketa digitalean. Eraldaketa etiko, seguru eta gardena.
- Langile publikoak gaitzea tresna digitalen erabilera etikoan.
- Herritarren konfiantza sortzea administrazioek beren datuei ematen dieten erabilera.
- Pribatasuna eta segurtasuna bermatzea.
- Zerbitzu pertsonalizatuak eta "leihatila bakarreko" zerbitzuak sortzea; administrazioen eraginkortasuna eta eraginkortasun handitzea; burokrazia ezabatzea.

Estonia eta Finlandia ditugu erreferentzia gisa.

B6: Identitate burujabea eta datuen burujabetza

Herritarrek beren datuen pribatutasunean eta erabilera baimenean ahalduntzea identitate burujabearen eta datuen burujabetzaren bidez.

Herritarren eskura dauden tresnak sortzea, datuen burujabetza bermatzeko. Datuak pertsona bakoitzarenak dira, eta norberak ematen die sarbidea administrazioei eta enpresei, helburu jakin batzuetarako erabil ditzaten. Herritarrek tresna irisgarriak eta erabilgarriak izan behar dituzte, baimen hori modu errazean eman eta datuen erabilerak bistaratzeko (aldez aurretik baimena emanda).

European Self-Sovereign Identity Framework (ESSIF) sarean sartzea proposatzen da. Herritarren datuak oso zainduta egongo dira, eta fidagarritasun bermeak izango dituzte.

B7: Zibersegurtasuna

Zibersegurtasuneko zentro koordinatu bakar bat sustatu eta indartzea, enpresei eta administrazioei laguntza emateko zibersegurtasuneko arriskuak arintzen eta sistema eta konponbide seguruak ezartzen.

Dauden zibersegurtasuneko ekimenak (BCSC, ZIUR) bateratzea, eta Nafarroarekin lankidetzan aritzea. Lankidetzak estua CyBasque eta zibersegurtasuneko euskal eta nafar enpresen elkarlanean.

B8: Natural Language Processingen garapenerako erreferentziako gunea

AA hizkuntzan ikertu, garatu eta aplikazio-eremu desberdinetara (osasuna, administrazio publikoa, industria) transferitutako duen erreferentziako azpiegitura kolaboratibo publiko-pribatua eratzea. Badira arlo honetan puntan dabiltzan zentro publiko eta pribatuak Euskal Herrian (Hitz Zentroa, Vicomtech, Elhuyar, Ametzagaña, Tecnalia eta abar).

Erreferentziako gune saretu eta birtuala: AA eta hizkuntza-teknologiak langai izango dituen ekimen publiko-pribatuen oinarritutako ikerketarako eta garapenerako zentro saretu eta birtuala sortzea non administrazio publikoak, unibertsitateak, ikerketa zentro publiko zein pribatuak eta sektoreko eragileak elkarlanean arituko liratekeen, eta Europa mailako antzeko sareekin koordinatua izatea eta elkarlanean aritzea helburutzat izango lukeena.

B9: Hizkuntza gutxiak eta industria kulturala

EiTB Lab: Euskal ikus-entzunezkoak munduratzeko edukiak ikertu eta garatzeko laborategia.

EiTBk online aplikazio eta plataformak bultzatuko lituzke, erabiltzaileek sortutako edukiei lekua emanez eta eduki interaktiboak indartuz, baita esperimentazioa ahalbidetuz ere, euskarri berri guztien aldeko apustua eginez. Kolaborazio publiko-pribatua bilatu ahalko litzateke euskal industriarekin eta ekoizleekin.

Europako beste hizkuntza batzuetako ekoizpenetikiko lotura egin ahalko litzateke, hizkuntza gutxituetako ikus-entzunezko edukiak sustatzeko eta kontsumitzeko plataformekin lankidetzak garatuz, hizkuntza gutxituetan ikus-entzunezkoak ekoizteko europar plataforma digitalak sortzea helburu.

C. Erresilientzia sozial eta ekonomikoa

Erresilientzia deritzogu ez soilik kanpo faktoreen inpaktuak gaitzatzeko gaitasunari, baizik baita trantsizio jasangarri, justu eta demokratikoak garatzekoari ere. Covid-19ak estres egoeran jarri du osasungintza sistema, gizarte-zerbitzuak hibernazio egoeran utzi zituen aldi baterako eta kalte handiak sortu ditu ehun produktiboan ere. Baina kalte koiunturalez harago, funtsean, osasun krisi honek egiturazkoak diren hutsune eta arazoak anplifikatu baino ez du egin, lehenagotik zetozen joerak azkartu ditu eta sistema ekonomikoaren beraren eraldaketaren beharra mahaigaineratu du.

Hutsune eta arazo horien artean ditugu: osasun sistema publikoan beharrezko inbertsiorik eza, oinarritzko ikerketaren aldeko apusturik eza, prekarietatea eta dualizazio soziala, soldata arrakala emakume eta gizonen artean, industria berrikuntzan atzerapausuak, ekoizpen industrialaren deslokalizazioaren eta dibertsifikaziorik ezaren ondoriozko zaugarritasuna, lehen sektorearen gainbehera, gizarte-zerbitzuak zaintzen krisiaren arora egokitzeko inbertsiorik eza, hezkuntza sistemaren agorpena, industria kulturalaren ahuldadea eta abar.

Lehentasun ekonomikoak birpentsatzeko garaia da. Bizitzaren zerbitzura egongo den eredu ekonomikoaren lehentasun behar dute, besteak beste, osasun, zaintza eta babes sozialerako sistema publikoek, elikadura osasungarriak, balio erantsi altuko industria iraunkorrak eta kultur ekosistemaren garapenak.

C1: Osakidetzaren digitalizazioa

Egitasmo honek Osakidetzaren egungo inteligentzia sistemen bilakaera luke helburu, datuak ustiatzeko bitartekoak sortuz, AAre aplikazioa bultzatu dezaketen ikertzaile publiko eta pribatuen ekosistema areagotuz, gizarteari balio handiagoa emateko. Ekimenak inbertsio garrantzitsua eskatuko luke, Osakidetzaren egungo BI plataformen balioa azpimarratzeko ez ezik, ustiapen plataforma seguru eta erabilgarriak sortzeko ere, datu-iturriak integratu, edukia bateratu eta ateratako informazioa ustiatu ahal izateko.

Zoritarrez, Covid-19ak erakutsi digu gaur egungo gizarteak duen erronka nagusietako bat osasun sistemak indartzea dela. Digitalizazioak aukerak irekitzen ditu diagnostikoak hobetu, gaixo kronikoen jarraipena hobetu, ospitaleen kudeaketari laguntza eman, eta zerbitzu publikoaren kalitatea bermatu eta hobetzerekin batera, baliabideen dimentsionamendu eta kudeaketa hobea ahalbidetuko duten aurreikuspen-sistemak diseinatzeko. Argi utzita digitalizazioa ezin daitekeela kontsulta presentzialen kalterako izan, ez eta zerbitzuen pribatizazioarako bide bat.

C2: Lehen arreta egokitzeko proiektu estrategikoa

Lehen arreta garai berrietara egokitu eta esku-hartze komunitarioarako indartzeko, bere osaera eta funtzionamendua berregokitzeko proiektu estrategikoa.

Erakunde Sanitario Integratu (ESI) batean proiektu pilotu gisa lehenik, eta aurrerago gainerakoetara zabaltzeko xedearekin, lehen arretako ekipoak eta osasun etxeak egokitzea, bertan fisioterapeutak, osasun mentaleko psikologoak, gizarte laguntzaileak, geriatrak kokatuz; eta orientazio bulegoekin zein espazioak berrantolatu eta zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren teknologia berriei hornituz. Horrela, esku-hartze komunitarioan (adinekoekin, ikastetxeekin, kronikoekin, herritarrekin oro har) sakontzeko xedearekin, osasun sustapena eta prebentzioa ardatz hartuko litzateke.

C3: Emergentzien Arretarako Agentzia

Emergentziaren arretan parte hartzen duten eragile ezberdinen koordinazioa hobetuko lukeen agentziaren sorrera, eta honek beharko lituzkeen azpiegitura berriak hornitzea edo daudenak egokitzea.

Emergentziaren arretan parte hartzen duten eragile guztiak (Ertzantza, udaltzainak, suhiltzaileak edo sanitarioak), bigarren sarea osatuko duten boluntarioak barne, prestatuko lituzkeen akademia egokitzeko eta koordinazioaren ardatz bihurtzeko.

Emergentziak-Osakidetza sortuko litzateke, berrasmatutako ESipean, ospitalez kanpoko larrialdi sanitarioei erantzuna ematen dieten profesional eta boluntario guztiak bildu eta behar den bezala koordinatzeko. Emergentzia soilari erantzuna eman ordez, gaixo kronikoek eta zaugarriek dituzten beharrak aseko lituzkeen erakundea antolatuz.

Halaber, osasun-emergentziei erantzuna emango liekeen erabat publikatutako sistema batek (Emergentziak-Osakidetza ESlan bilduta) behar dituen azpiegiturak berritzeko aukera emango luke.

C4: Produktu farmazeutikoen ikerketa, fabrikazio eta hornikuntzarako poloa

Polo farmazeutiko baten garapena MedTech (teknologia biomedikoa) izaerako plan estrategikoaren bidez. Egungo sare farmazeutiko-sanitariotik (publikotik zein pribatutik) abiatuta, planaren ardatza Erkidegoa beharrezko azpiegituz hornitzea litzateke, erreferentziazko eragile bihur dadin osasun-larrialdiko egoeretan erantzuteko eta produktu farmazeutikoen ikerketan, fabrikazioan eta horniduran.

Proiektuaren garapenean parte hartu ahalko luketen eragileak: BIO Araba, EHU- farmazia, Pharmalab 4.0 (Tecnalia + EHU), sektoreko enpresak eta erakunde publikoak.

Polo farmazeutiko honen garapenak eskatuko lukeen inbertsioaren artean legoke Arabako parke teknologikoan instalazio berriak eraikitzea, jarduera gauzatzeko beharrezko ekipamendua eta makinaria, bai eta fabrikaziorako lizentziak eta baimenak ere.

C5: Gizartekintza, Babes eta Zaintza Duin eta Unibertsalen Sistema Publikoaren Erakunde berriaren egituraketa

Gizarte-zerbitzuen sistema gainbera etorri da eta erakundeek ez diete euskal gizartean sortzen ari diren zaintza beharrei tamainako erantzunik eman. Ondorioz, egungo zaintzak desegokiak, prekarioak eta desberdintasun sozialen sortzaile dira, eta ez dira libreki hautatuak. Testuinguru honetan, zaintza lanak kolektibizatu eta duintzea da aurrera begira dugun gizarte-erronka nagusienetakoa.

Zaintzen antolaketa gaur egun ezagutzen dugun moduan ez da jasangarria. Biztanleriaren zahartzearen ondoriozko desoreka demografikoak zaintza lanak areagotu ditu, eta are gehiago areagotuko ditu etorkizunean. Zaintzaren krisi sakon batean gaudelarik, zaintza beharrezkoa den ondasun unibertsal bezala onartu eta familia eremutik aterako duen erakundetza da herri bezala dugun premia handienetako bat.

Horrela, ezinbestekoa da zaintzen demokratizaziorako bidean jauzi bat eman eta Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako Zaintza Duin eta Unibertsalen Sistema Publikoaren erakunde berri bat sortzea, gizarte-zerbitzuei dagokionean sistema publiko bakarra izan beharko litzatekeena: "Gizartekintza" diseinatu eta egituratzea eta, horrekin, zaintzak baloratu, aitortu eta konpentsatzeko prozesua abian jartzeaz ari gara.

Egituraketa berri honen bidean, lehentasuna emango litzaiokie iraupen luzeko zaintzen eraldaketari. Izan ere, adinekoentzako egoitza-zentroetako baldintza material, funtzional eta pertsonalen araberakoa izan da Covid-19aren intzidentzia. Gainera, alde handiak azaleratu dira, titulartasunaren eta kokapenaren arabera. Iraupen luzeko zaintza-erakundeen eraldaketa gure gizartearen kezken erdigunean jarri da. Bi jardunbide izango lituzke programa honek:

- Adinekoentzako 350 egoitza-zentro baino gehiagoren egokitzapen material eta funtzionalerako inbertsioen plana: banakako gelen kopurua handitzea, banaketa modularra eta, aldi berean, plaza berriak irekiz sarearen estaldura bermatzea.
- Zaintzen sektoreko lan eta soldata-baldintzen hobekuntza finantzatzeko funtsa. Halaber, zuzeneko arretako langileen ratioak handitzea.

C6: Adimen Artifiziala, Robotizazioa eta Sistema Aurreratuen Kolaborazio Irekiko Hub Europarra

Egitasmo honen helburua litzateke berrikuntza ekosistema ireki bat sortzea AAn, eta ezagutza eta soluzioak industriara transferitzea, lurraldea erreferentzia gune izan dadin AAn irtenbide fidagarrietan. Lankidetzat estua izango luke Europako antzeko poloekin.

Konponbide fidagarriak dagokienez (gardenak, seguruak, etikoak eta eraginkorrak), Europako eskualde erreferentea izatea da helburua. Horretarako, lankidetzak publiko-pribatuko eta mugaz gaindiko hub bat sortu beharko litzateke, administrazioei, enpresei eta herritarrei balioa emango dieten irtenbideak sortzeko.

Hub hau arduratuko litzateke administrazioen, berrikuntza zentroen, ezagutza zentroen (unibertsitateak eta abar), enpresa traktoreen, industria-enpresa txiki eta ertainen, start-upen eta abarren arteko lankidetzak sustatzeaz, ezagutza eta irtenbide etikoak sortzen dituzten finantzaketa eredu publiko-pribatuekin eta horiek industriara transferitzen dituztenekin.

Honako helburuak ere izango litzateke hub honek:

- Big Data oinarritutako irtenbideak sortzea industriarentzat eta administrazioarentzat.
- Ezagutza irekia eta kalitatezko enplegua sortzea.
- Ekintzailak eta potentzial handiko enpresen sorrera. Horretarako administrazioaren laguntza finantzarioa eta enpresa horiek nazioartekotzen eta europartzen laguntzea.
- Profesionalak formatu eta talentua erakartzea.

Azken honi dagokionez, STEM arloko profesionalen gabezia handia daukagu, etorkizun hurbilean agerian geldituko dena. AAn zein bestelako zerbitzu aurreratuak adituak formatu behar ditugu. Aditu hauek bertako unibertsitateetatik ateratzeko apustu sendoa egin beharko litzateke.

C7: Enplegu Duin eta Kalitatezkoaren Adimen Zentroa

Enplegu politiken eraldatze agente nagusia izango litzatekeena. Lan merkatuaren prospekzio publikoa egin eta norabidea argitzen duena, ekimen berritzaileak proposatzen dituena (jarduna, ordutegia, telelana, ekintzailak kolektiboak, pizgarri berriak, proiektu pilotoak, euskara enpresetan eta abar), tresna berriak proposatzen dituena, etengabeko ebaluaketarako irizpide eta metodoak jartzen dituena.

Besteak beste, Lanbideren eraldaketa eta berrdimensionatzea sustatuko lukeena, kalitatezko enplegua helburu, langabetu, enplegu-eskatzaile eta enpresentzako tresna nagusi bilakatzen.

Enpresei dagokienez, enpresen balio-katea gero eta automatizatuago eta digitalizatuago dagoenez, kualifikazio txikiak lanpostuak gutxitzen joango dira pixkanaka. Gainera, teknologia digitalaren bilakaera azkarra langileen ezagutza teknikoak etengabe eguneratzera behartzen du. Testuinguru horretan, reskilling eta upskilling programak garatu eta finantzatzea lehen mailako beharra izango da pertsonen enplegarritasunari eta enpresen lehiakortasunari eusteko.

Erronka horiei erantzun ahal izateko, Lanbideak eboluzionatu egin behar du, langabezia kudeatzera bideratutako erakunde publiko izatetik pertsonen enplegarritasuna kudeatzen duen erakunde izatera, lanean ari diren baina berriz kualifikatu behar duten pertsonentzako reskilling eta upskilling programak integratuz, langabezia egoeran sartzeko arriskua murrizteko; langabezia egoerak zuzentzera bideratutako ikuspegi erreaktibotik ikuspegi prebentiboa ere txertatzera pasatzea, langileak langabezia egoeran sar ez daitezkeen kualifikazio faltagatik.

C8: Berrikuntza Sozialerako Laborategia

Gizarte konplexu eta anitza da gurea eta horrelakoeak dira kohesio soziala helburu aurrez aurre ditugun erronkak ere. Erronka hauei lankidetzan baino ezin dakieke aurre egin. Gakoa izango da sektore publikoaren, eragile sozioekonomikoen, ezagutzaren eremukoaren eta gizarte antolatuen arteko elkarlana. Izan ere, iraunkortasunaren hiru dimentsioak uztartzen dituzten berrikuntza irekiko ekosistemak eratzea ezinbestekoa da deskarbonizazioa, ekonomia zirkularraren garapena, desoreka

demografikoa edota desberdintasun sozialen areagotzearen gisako erronkei aurre egin ahal izateko. Debagoiena 2030 dugu halako berrikuntza ekosistema baten adibide on bat.

Halako esperientziak eskalatu eta lurralde osora barreiatzeko beharrezko lidergo publikoa artikulatzeko tresna litzateke laborategi hau. Berrikuntza soziala ardatz hartuko duen instituziogintzarako laborategia, berrikuntza irekian oinarritutako jardun instituzionala pentsatu eta sustatzeko.

C9: Elikadura programa

Farm To Fork estrategia kontuan izanik eta helburu anbizioak jomugan, erakunde eta enpresek, bakoitzak bere eskumen eta gaitasunetatik, elikadura estrategiak eta trantsizio agroekologikorako prozesuak euren agendako lehen lerroetan sartzea, hori baita Euskal Herrian etorkizuneko lehen sektorea eta elikadura sistema jasangarri, osasuntsu eta justua eraikitze bidea.

Lau proposamen-lerro zehatz: 1) Ekoizpen eredu agroekologikoari lotutako elikagaien aldeko apustua egitea erosketa eta sukalde publikoetan (eskolak, zahar egoitzak, ospitaleak eta abar), horrek herritarren osasuna ez ezik, lehen sektorearena ere bermatuko baitu; 2) Lehen sektorearen erreleboa bermatzeko instalakuntza programa eraginkorrak aktibatzea, luraren babeserako eta erabilpenerako arautegia sortu eta elikagaien bidezko prezioen arautegia lantzea; 3) Emakume Baserritarren Estatutua errebisatu, egokitu eta bere aplikazioa garatzea; 4) Elikadura sistemaren Ikerketa eta Berrikuntza estrategia berrikuntza sozialarekin lotzea, egungo euskal berrikuntzaren ikuspegi teknologiko soila Europako estrategia berrietara egokitze.

C10: Salgaien banaketaren logistikarako plataforma

Askotariko produktuak eta saltzaileak hartuko lituzkeen logistika plataforma, banaketa eta itzulketa logistika, ordainketa moduak, bermeak, packaginga eta abar garatuko lituzkeena.

Marketplace globalak mehatxu publikoa dira tokiko merkatarientzat eta baita finantza arloarentzat ere. Argiki ikusi da pandemia garaian bertako hirugarren sektorea nola atera den kaltetua banaketa plataforma globalen mesedetan. Halako marketplace globalek kalte ekonomiko handiak sortzen dituzte, enpleguari zein ogasunari dagokionean.

Alternatibak kolaborazio publiko-pribatua eskatuko luke; administrazioaren bultzada izango luke eta jada banaketa logistika bat baduten bertako enpresekin lankidetzan garatuko litzateke, Erkidego Autonomoan solte dauden pieza logistikoak elkartuz.

C11: Arte eta kultura: sormena, ekoizpena eta hedapena

C11.1: Research and Innovation Strategy for Smart Specialisation (RIS3) estrategiarekin lerratuta dagoen kultur eta sormen industriaren sektoreko enpresei zuzendutako berrikuntza programa indartzea. Kultur eta sormen industriaren alorreko enpresentzako berrikuntzarako estrategian sakondu eta aukerak zabaltzea. Smart Creative Districts programaren aurrekontua hirukoiztea 2022-2026 ekitaldietarako.

C11.2: Euskarazko kulturgintza sustatzen duten plaza eta jaialdiak egonkortzeko plaza digitala: Hilbeltza, Loraldia, ADEL, Sormene, Sarako idazleen biltzarra, Literaturia, Azpeitiko antzerki topaketak, Lekeitioko Euskal Zine Bilera, Ahotsenea eta Durangoko Azoka, besteak beste, koordinatzeko gunea.

Beharizan komunak identifikatuta, ekoizpen lanetarako eta komunikazio-hedapenerako baliabideak, bitartekoak eta edukiak partekatzeko interneteko Plazak Elkarrekin atarian guztion eskaintza bilduko litzateke.

C11.3: Geuretik Sortuak: Euskaraz egindako arte eta kultur sormena, ekoizpena eta hedapena sustatzeko mugazgaindiko proiektua.

Diziplina ezberdinetan, artearen eta kulturaren bitartez, Euskal Herri osoko herri ezberdinetatik, herri-kontakizuna eta euskarazko kultur eskaintza eta erregistroa areagotzea helburu duen proiektua da, Udalbiltzak garatua. 2021-22 ekitaldietan burutuko da lehen edizioa.

Bigarren edizio batean (2023-2024 ekitadietan zehar) Euskal Herri osoko 75 udalerri hautatuko lirateke, eta horietan kultur diziplina ezberdinetako 75 sortzailek sormenerako egonaldiak egingo lituzkete (udalerri partehartzaileen kopurua eta aurrekontua hirukoiztuz). Egonaldi horietatik sortu eta ekoiztutako obrekin kultur zirkuitu bat antolatuko litzateke gero, parte hartuko luketen herri guztietan aurkeztuz obra horiek. Dinamika hau Euskal Arte eta Kultur Eskola Nazionalaren sortze prozesu esperimentalaren ernamuina izan ahalko litzateke.

4. Euskadi Next programaren irakurketa kritikoa

Bistan da Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuari abuztuan bidalitako proiektu-zerrenda hartatik Euskadi Next programara hobekuntza dagoela. Esan behar da hasierako proposamen hura hobetzea ez dela gauza zaila, zerrenda hura, PriceWaterhouseCoopers (PwC) aholkularitzak egin zuen balorazioak iradoki zuen bezala, NG funtsen izpiritua eta letra ulertu gabe egindako zerbait izan baitzen.

EH Bilduren kritika nagusia gobernantzari buruzkoa izan da orain arte. Izan ere, Euskadi Next programa osatu arteko prozesua erabat iluna izan da. Ez da soilik eztabaida politikoa ukatu egin dela eta oposizioaren proposamenak aintzat hartu ere ez direla egin; areago, ez da ezarri eragile instituzional, sozial eta ekonomikoei zuzendutako inolako partehartze-bide formalik. Ondorioz, prozesuaren eta mahaigaineratu diren proiektuen gaineko informazioa bakarren batzuen eskuetatik baino ez da pasa.

Udalak kexu agertu dira, Aldundiak ere bai, berdin hainbat eragile ekonomiko ere. Baina, are gehiago, Eusko Jaurlaritzak berak dokumentuaren garapenerako definitu zuen gobernu-batzorde interdepartamentala ere ez da martxan jarri: ez dago bere jardunaren aktarik eta ez ditu Euskadi Nexten jaso diren proiektuak baloratu, helburu horrekin eratu zen arren.

Berriro diogu, kalte handia egiten digu halako garrantzia duen inbertsio estrategikoa erabakitzeko Eusko Jaurlaritzak darabilen instituziogintza-molde honek, gobernantza kolaboratibotik eta auzolanetik ezer ez duena. Hori esanda, gobernantza kontuak albo batera utzita, jarraian formei baino edukiei helduko diegu, Euskadi Next programaren analisi kritiko bat eskaini asmoz:

Giza garapen iraunkorraren eraldaketa-iparra epe ertain-luzeari erantzun nahi dioten zazpi plan estrategikoetan oinarritzen du Euskadi Nextek: PCTI Euskadi 2030; RIS3 Euskadi 2030; Klima 2050 Basque Country; Euskadiko estrategia energetikoa 2030; Euskadi ekonomia zirkularra 2030; Agenda urbanoa, Bultzatu 2050; eta Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako erronkak. NG funtsei buruz ari garelarik, trantsizio ekologikoari ematen zaion erdiguneagatik, garrantzia berezia hartzen dute, hurrenkera honetan, Klima 2050 Basque Country, Euskadiko estrategia energetikoa 2030 eta Euskadi ekonomia zirkularra 2030 planek.

Klima 2050 Basque Country plana 2015ean publikatu zen eta Euskadiko estrategia energetikoa 2030 2017an. Ordutik gauzak asko azkartu dira klima-larrialdiari dagokionez. Berriki Europar Batasunak erabaki du BEGen isurketen murrizketa %55ekoa izan behar dela 2030ean 1990eko mailarekiko. Hau da, %40tik %55era igo du erronka klimatikoari aurre egiteko ekinbidearen anbizioa. Bada, Klima 2050 Basque Country planak BEGen %25eko murrizketa du helburu 2030ean (1990 urtearekiko). Halaber, 2050. urterako kontsumo energetiko gordin totalaren %40a iturri berriztagarrietatik eratorria izatea du helburu, erabat ez-nahikoa Europar Batasunak onartu berri duen erronka klimatikoari erantzuteko, zeinari errealismoz heldu nahi bazaio, energia berriztagarrien %40ko kuota 2030erako erdietsi beharko bailitzateke, hogeitaz hamar urte lehenago.

Bistan da Klima 2050 Basque Country iraungitako estrategia dela eta erronka klimatikoa goitik behera birdefinitzeko behar urgentea dagoela Erkidego Autonomoan. Aipatutakoa nahikoa zaigu zera adierazteko: Euskadi Nextek oinarrian duen eraldaketa-iparra ez dago Europar Batasunak mahaigaineratu dituen erronkekin lerratuta.

Dokumentuak ikuspegi sistemiko lausoa du. Konponenteak deritzen zortzi atal nagusitan antolatzen dira proiektuak. Kasu gehienetan, konponente horietako bakoitzak ez du helburu estrategiko argien formulaziorik. Ondorioz, konponenteei koherentzia estrategikoa falta zaie. Proiektu asko jasotzen dira, kasu askotan elkarrekiko inkonexioak direnak, logika estrategikorik eraikitzen ez dutenak. Ondorioz, ez da eraldaketa-ipar argirik marrazten. Argiro ikusten da emaitza hau ekarri duen prozesua zein izan den: Hiriburuetakoko udalek, hiru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta zeinbat enpresek proiektuak mahaigaineratu dituzte eta Ikei Reasearch & Consultancy aholkularitza-enpresak josteta lanak egin ditu, koherentzia formal bat eman nahirik. Urrun gelditzen da ordea NG funtsek sustatu asmo duten eraldaketa sistemikoa traxionatuko duen proposamen estrategikoa izatetik.

Konponente gehienetan elkar solapatzen diren antzerako ezaugarri eta helburuak dituzten proiektuak aurki daitezke. Ikuspegi sistemiko egoki baten faltak eta oinarri estrategiko sendorik ezak horixe dakar: ekosistema kolaboratiboak sustatu ordez elkarrekiko lehian sar daitezkeen proiektuak planteatzea. Iragan hamarraldietan Erkidego Autonomoan garatu diren kluster-politiken eta -egituren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa falta bada ere (haien eraginkortasunari eta potentzialtasunei dagokienez), uste dugu gure lurralde-eskalak kooperazioa oinarri duten ekosistemen alde egitera behartzen gaituela, gainera datozkigun erronka sozialei baikorki erantzungo badiegu.

Proiektu batzuk zehazgabeak dira edota lotzen zaien justifikazioa ez-nahikoa da, eta ondorioz ez dute gorputz nahikorik. Halaber, badira 0 eurotako aurrekontu-zuzkidura duten proiektuak.

Ez da lurralde-kohesioa zaintzen. Espainiako Gobernuaren Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia delakoaren lau ardatzetako bat lurralde-kohesioa da, hain zuzen. Euskadi Nextek hiriburuetakoko gune metropolitarretan pilatzen ditu proiektu gehientsuenak, de facto uko eginez lurralde-kohesioari helburu gisa.

Ez da udalekin kontatu, salbu hiriburuetakoekin. Ez dago argi 5.000 biztanletik beheragoko udalei zer aukera ematen zaien. Badirudi esaten zaiela, beste hitz batzuekin, espainiar diru-laguntzetara jo dezatela ("Manifestación De Interés" edo MDI delako proiektuen bidez), baina ondoren koordinazio-organo baten sorrera ere aipatzen da, Aldundiekin eta Eudelekin batera antolatu asmo dena. Finean, ez dago eredu zehatzik 5.000 biztanletik beheragoko udalerrientzat. Udalerri ertain eta txikiak aintzat hartu ez izanak are gehiago handituko du hirigune handien eta landa-eremuaren arteko arrakala.

Kolaborazio publiko-pribatuaren nolakotasuna ez da inon zehazten. Enpresa batzuk aipatzen dira eta egintzat jotzen da funtsen onuradun izango direla. Baina inon ez da zehazten konkurrentzia publikoaren oinarritzko printzipioa nola errespetatuko den.

PERTE (Proyecto Estratégico para la Recuperación y Transformación Económica) deritzen proiektu singularretan ez da azaltzen zein den ekimen publiko eta pribatuaren arteko proportzioa. Eta oro har, ez dago argi zein den sektore publikoaren rola: nola parte hartuko duen sektore publikoak proiektu estrategiko horietan, hala ikuspegi finantzariotik nola operatibotik. Esana dugu sektore publikoak rol aktibo ekintzailea garatu behar duela halako proiektuek eraldaketa sistemikoa traxionatuko badute.

Dokumentuan aipatzen den "kolaborazio pribatu-pribatua" kontzeptua zer den argitu beharko litzateke funts publikoetaz ari garelarik.

Pandemiak gure hizkuntza nabarmen kaltetu duen garaian, Euskadi Nextek ez dio euskara eta euskal kulturari inolako arretarik jartzen. Euskarari lotuta proposatzen den proiektu bakarrak inbertsio totalaren %0,02 jasotzen du; Tabakalerako 2deko laborategiak, hain zuzen. Euskadi Next programa publikatu eta hilabetera dokumentua euskaraz eskuragarri ez egotea bera adierazgarria da: euskara bigarren mailako hizkuntza da, espazio publikotik erazua.

4.1. Konponentez konponente

Jarraian, modu sintetikoan bada ere, konponente bakoitzari gainbegirada eman eta atzeman ditugun ahulezi eta hutsuneak zerrendatuko ditugu.

Pertsonen osasuna eta zaintza

Balorazio orokor gisa, gai asko lantzen dira konponente honetan (osasun larrialdiei aurre egiteko azpiegitura, terapia aurreratuak, teknologia genomikoak, osasun sistemaren digitalizazioa, lehen arreta, zaintza eta esku-hartze soziosanitarioa, inklusio soziala, enplegua, kirol azpiegiturak) baina ez dago helburu estrategikoen definizio argirik. Dispersioa handia eta urriak dira eraldaketa sistemikoa trakzionatzeko gai diren proiektuak.

Terapia aurreratuak lotutako bi proiektuen artean (GANTT eta Aceleración del desarrollo e implementación de las Terapias Avanzadas en el País Vasco) solapamendua dago. Lehen Gipuzkoari lotzen zaio, bigarrena Erkidego mailakoa da. Zein bere kabuz pentsatutakoak dirudite, ez da sinergiarik adierazten. Deigarria da PERTE izendapena daramana Gipuzkoa mailakoa izatea eta ez Erkidego mailakoa.

Lehen osasun arretari begirako proiektua orokorregia eta zehazgabea da. Gainera, azpiegitura gehitzea proposatzen du besterik gabe, ereduaren eraldaketarik ez. Ez dugu uste NG funtsen onuradun zatekeenik.

Economía de los Cuidados proiektuak, zeinak PERTE izendapena duen, ez dio zaintza krisiaren testuinguru historikoari erantzuten. Bigarren ardatza (Nuevos perfiles profesionales y nuevas competencias) zehazgabea da eta guztiz ez-nahikoa. Erronka demografikoa eta zaintzaren krisia gaian ditugularik, proiektu honek gizarte-zerbitzuen egiturazko berrikuspen bat proposatu beharko luke, zaintza-sistema publiko baten oinarriak finkatzea helburutzat hartuz.

Ondoren zerrendatzen diren proiektuetan (gizarte-zerbitzuei, esku-hartze soziosanitarioari zein zahartze aktiboari begirakoetan) ez dago ikuspegi bateraturik, proiektu inkonexoak dira.

Inklusio sozialari buruzko proiektuak (GIZARTE.EUS+) ez du gorputz nahikorik.

Kalitatezko enplegu inklusiboari erantzun asmo dion proiektua (ELKAR-EKIN LANEAN) solte dago konponente honetan.

Bizkaiko kirol azpiegitura lokalen eraberritzea ezin daiteke proiektu gisa kontsideratu.

Bizialdi osorako ikaskuntza

Oro har konponente hau ahula da edukiz. Hezkuntza sistemaren digitalizazioa eta ekintzailetasuna lantzen ditu. Ekintzailetasunari lotutako proiektuek ez dute ikuspegi bateraturik, erabat inkonexoak dira. Badira proiektuak erabat zehazgabeak, ezer esaten ez dutenak (adibidez: Centro Internacional de Emprendimiento Torre Bizkaia; edota Plan de formación y mejora de las capacidades de las personas que trabajan en centros residenciales).

Energia berriztagarrien sorkuntza

Konponente honetan hidrogenoaren aldeko apustua gaitzetsionatua dago argiki. Inbertsio totalaren %56,83 Petronorrek gidatzen duen hidrogeno korridoreak hartzen du. Nabarmena da ez dagoela Erkidego Autonomoak egin beharreko trantsizio enegetikorako ibilbide-orri definiturik. Horren faltan hidrogenoaren aldeko apustu itsua egiten da, ez Erkidego Autonomoaren trantsizio energetikoari begirako estrategia baten baitan, baizik balio ekonomikoa sor dezakeen hidrogenoaren industriaren garapena sustatu asmoz, noiz eta nabarmena denean petroleo eta gas industriaren interes korporatiboa hidrogenoaren industria gara dadin. Gure aburuz, NG funtsak trantsizio ekologikoari ematen dioten erdigunea aintzat hartuta, konponente honen helburu behinena Erkidego Autonomoaren trantsizio energetikoa materializatzeko beharrezkoa den energia berriztagarrien garapenak beharko luke.

Eta argi izan behar dugu trantsizio energetikoan hidrogenoak zein funtzio betetzen duen. Hidrogenoa ez baita energia iturri bat, sektore energetiko bat baizik. Hiru dira trantsizio energetikoaren kate-begi nagusiak: 1/ Energia kontsumoaren murrizketa. 2/ Efizientzia energetikoaren maximizazioa. 3/ Erregai fosilak energia berriztagarriengatik ordezkatzea, zeinak ahalik eta sektore gehien elektrifikatzeko hautua lehenestea eskatzen duen. Hidrogenoak bi funtzio nagusi litzuzke etorkizuneko mix energetikoan: energia berriztagarrien intermitentziaren arazoari irtenbidea ematen laguntzea eta elektrifikatu ezin daitezkeen azpi-sektoreetarako energia-baliabidea izatea.

Bestalde, AIXENDAR eta EKIENEA proiektuek NG funtsen onuradun izateko aukera gutxi dituztelakoan gaude, PwCk Eusko Jaurlaritzaren abuztuko proiektu-zerrendari egindako balorazioan azpimarratzen den bezala.

Mugikortasun jasangarria

Hiru ahulgune nagusi antzematen dizkiogu konponente honi. Batetik, hiru proiektu (horietatik bi PERTE izendapenarekin (Basque CCAM LAB eta Polo Mubil) eta Centro de fabricación avanzada en automoción industria 4.0) mugikortasun adimendunari lotzen zaizkie: Elkar solapatzen diren hiru proiektu, indarrak batu eta askatu baino elkarren arteko lehian bukatu dezaketenak. Proiektu ezberdinak badira justifikatu beharko litzateke non bukatzen den bata eta non hasten den bestea. Zein bere kabuz pentsatutako proiektuak dirudite, ikuspegi bateraturik gabe. Polo Mubilen kasuan, bere helburuetako bat litzateke “la creación de una actividad industrial referente en Europa en recuperación de tierras raras”, zeina solapatzen den aurrerago proposatzen den Polo industrial de recuperación de tierras raras y de fabricación de imanes permanentesekin.

Smart Factory para la movilidad sostenible del futuro delako proiektuak, zeinak PERTE izendapena duen, mugikortasunarekin duen lotura ez dago argi izenburutik harago.

Tren azpiegituren hobekuntzari lotutako proiektuek NG funtsen onuradun izateko aukera gutxi dutela deritzogu, ez badira mugikortasun elektrikoa sustatzeko programa koherente baten baitan kokatzen behintzat. Berdin hiriburu eta mugikortasun iraunkorrari dagozkien proiektuekin ere.

Administrazioen, enpresen eta balio-kateen digitalizazioa eta berrikuntza

Deigarria da hiru PERTEetako bat Parque terrestre de producción acuícola izatea. Eta AAren euskal zentroak (BAIC) 40 miloiko aurrekontua izatea eta akuikultura parke batek 105 miloikoa.

Oro har, proiektu batzuk ondo definituta dauden arren, ez da herri-estrategia argirik antzematen. Nabarmena da hori, adibidez, bi zibersegurtasun zentroen aldeko apustua egiten denean (ZIUR eta BCSC). Proiektu gehiegi aurkezten dira, nabarmenki lurralde bakoitzak eta hiriburu bakoitzak bereak jarri ditu mahaigainea, baina ez dago Erkidego Autonomia digitalizazioaren aroan modu transbertsealean posizionatzeko estrategia definiturik. Lurralde-kohesioa falta da.

Trantsizio digitalean gakoa den auzi bati ez zaio behar bezala erreparatzen: Identitate digital burujabea eta datuen burujabetza.

Software librearen aipamenik ez da ageri, zeina gakoa izango den, besteak beste, bertako ekosistema teknologikoa garatzeko.

Elikadurari lotutako proiektuak ez zaizkie NG funtsek sustatzen duten Farm to Fork strategiari lotzen.

Euskarak eta euskal kulturak digitalizazioaren aroari aurre egiteko proposamenik bat ere ez dago.

Hiri-habitata

Konponente honetan proposatzen den Museo Guggenheim Gernikak, Bilbokoaren hedapen berde gisa aurkezten denak, ez dio NG funtsen zentzuari erreparatzen. Badira beste batzuk nekez kontsidera daitezkeenak inbertsio disruptibo gisa.

Habitat naturala eta hondamendi naturalen prebentzioa

Proposatzen diren proiektuekiko kontrakotasunik ez dugun arren, nabarmena da ez dela hiriburu etakoak ez diren udalekin elkarlanik garatu. Ondorioz, konponente honek ez du lurralde-kohesioaren printzipioa betetzen.

Ekonomia zirkularra

Konponente hau estrategia faltaren adibide argia da. Ez dago modurik antzemateko Euskadi Nextek jasotzen duenak zer modutan traxionatzen duen Euskadi ekonomia zirkularra 2030 estrategia. Konponente honetan ez dago PERTerik. Bai ordea industria-lurzoruak balioan jartzeko proiektu bat, 400 milioi euroko aurrekontu-zuzkidurarekin (konponentearen aurrekontu totalaren %80 baino gehiago hartzen duena), ekonomia zirkularrarekin zerikusirik batere ez duena.

5. Adostasun baterako proposamena

Ez gara nekatuko esaten hamarraldi historiko honetan herri honek hartuko duen norabidea finkatzen duten inbertsio estrategikoei buruz ari garen neurrian, funts hauekin abiatu behar diren proiektuen inguruko ahalik eta kontsentsu-maila handiena lortzea ezinbestekoa dela. Hori dela eta, ez gara iazko abenduaren 20an aurkeztutako egitasmoetan gelditu, Euskadi Next ezagutu ondoren, ahalegin bat egin dugu oinarritzko adostasunerako proposamen bat lantzen.

16 helburu estrategiko (HE) eta 38 egitasmoz osatutako adostasun-eremua definitu dugu. Horretarako, Euskadi Nextek proposatu duen antolaketa mantendu dugu, zortzi konponenteetan banatuz helburu estrategikoak eta hauei erantzun asmo dieten egitasmoak. Helburu estrategikoen formulazioak laguntzen digu konponenteetan jasotzen diren egitasmoen koherentzia estrategikoa ematen. 38 egitasmo horietako bakoitzak laugarren atalean proposatzen ditugun irizpideak bete beharko lituzke, hain zuzen Euskadi Next programaren analisi kritikotik ondorioztatzen direnak.

Adostasunerako eskaintza honen helburua honakoa litzateke: Urgentziaz, oinarritzko adostasun bat erdiesteko negoziazio prozesu bat abiaraztea Legebiltzarreko alderdi politikoen artean. Oinarritzko adostasunak bilduko lituzkeen egitasmoak lirateke Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin izango duen negoziaketan lehenetsiko liratekeenak. Legebiltzarreko alderdi politiko guztiek konpromisoa hartuko lukete Espainiako koalizio-gobernuko alderdi politikoeekin dituzten harremanetan adostutako egitasmoen alde egiteko.

Eranskinean taula batean laburbildu ditugu oinarritzko adostasun baterako egitasmoak.

Pertsonen osasuna eta zaintza

Lau helburu estrategiko bereizten ditugu konponente honetan. Osasun larrialdiei aurre egiteko azpiegitura sendotzea, osasun sistema digitalizatzea, lehen mailako osasun arreta egokitzea eta zaintza sistema publikoaren oinarriak finkatzea.

HE1: Osasun larrialdiei aurre egiteko azpiegitura garatu

1. Osasunberri: Solución integral de diagnóstico y terapias para la gestión de la Covid-19 y futuras pandemias. PERTE izendapena duen proiektu hau ontzat jotzen dugu.

Euskadi Nexten osasun-larrialdiei aurre egiteko azpiegitura Osasunberri proiektura mugatzen da. Beste bi hanka gehitzea proposatzen dugu ondorengo bi proiektuen bidez:

2. Emergentsien Arretarako Agentzia (C3). Gure proposamenean jasotzen dena.

3. Produktu farmazeutikoen ikerketa, fabrikazio eta hornikuntzarako poloa (C4). Gure proposamenean jasotzen dena.

HE2: Osasun sistema digitalizatu

4. Osakidetzaren digitalizazioa (C1). Digitalizazioarekin lotutako lau proiektuak ontzat jotzen ditugu, korrespondentzia ikusten dugu gure proposamenean jasotzen den C1 egitasmoarekin.

HE3: Lehen mailako osasun arreta egokitu

5. Lehen arreta egokitzeko proiektu estrategikoa (C2). Gure proposamenean jasotzen dena.

HE4: Zaintza sistema publikoaren oinarriak finkatu

6. Gizartekintza (C5). Zaintzarekin lotutako proiektuen ordez Gizartekintza martxan jartzeko baliatu beharko lirateke NG funtsak. Hauxe da Erkidego Autonomoak duen erronka nagusietako bat.

Bizialdi osorako ikaskuntza

Bi helburu estrategiko bereizten ditugu konponente honetan: Gaikuntza digitala eta langileen birgaitzea. Lehena hezkuntza sistemaren bidez landu beharko litzateke, baina ez soilik. Arreta gune nagusia eten digitalaren aurkako borroka beharko luke. Bigarrenak lan munduan datozen aldaketa sakonei heltzen die enplegu duin eta kalitatezkoa hartuz oinarritzat.

HE5: Arrakala digitalari aurre egin

7. Gaikuntza digital unibertsalerako plana (B1). Gure proposamenean jasotzen dena. Egitasmo honen baitan ontzat jotzen dugu Euskadi Nextek proposatzen duen hezkuntza sistemaren digitalizazioa, beti ere oinarritzko bi gehigarriekin:

Batetik, hezkuntza digitala heziguneak gailu elektronikoz hornitzea baino askoz gehiago dela aintzat hartzea: Irakasle eta ikasleak aro digitalean subjektu kritiko izateko hezi behar dira. Horretarako konpetentzia digitalak eskuratu behar dituzte, erabiltzaile gisa (programa ezberdinak erabiltzen jakin dezaten) zein partehartzaile gisa (pentsamendu konputazionala garatzen lagunduz). Eta bestetik, plataforma teknologiko multinazionalen (Google, Microsoft) menpekotasunarekin bukatu behar dela software librearen aldeko apustuaren bidez, Katalunian Generalitateak egin duen legez.

HE6: Langileak birgaitu (upskillig eta reskilling)

8. Enplegu Duin eta Kalitatezkoaren Adimen Zentroa (C7). Ekintzailtzarekin lotutako proiektuen ordez gure proposamenean jasotzen den hau, lan munduan datozen aldaketen aurrean enplegu politika eraginkorrak garatzeko Lanbideren eraldaketa ekarriko lukeena.

Energia berriztagarrien sorkuntza

Bi helburu estrategiko definituko genituzke. Energia berriztagarrien sorkuntza banatua eta ikerketa eta garapena.

HE7: Energiaren sorkuntza banatua sustatu

9. Energia berriztagarrien garapen banatua (A2). Gure proposamenean jasotzen dena. Honen baitan kokatzen ditugu Euskadi Nextek jasotzen dituen hainbat proiektu: Cooperativas y comunidades solares ciudadanas a través de NATURKLIMA, implantación de comunidades – parques solares en áreas industriales de Gipuzkoa para las PYMES, District heating NATURKLIMA, EKIOLA-ARABA eta abar.

HE8: Energia berriztagarriak ikertu eta garatu

10. Hub Industrial y Tecnológico de Eólica Flotante. Ontzat jotzen dugu PERTE izendapena duen proiektu hau.

11. Iberlyzer. Hidrogeno berdea merkatuan lehiakorra izatea bilatzen duen heinean, ontzat jotzen dugu proiektu hau. Beti ere, Eusko Jaurlaritzak gidatutako proiektua beharko luke.

12. Energiaren Inteligentzia Zentroa. Badira bi proiektu energia berriztagarrien ikerketa eta garapenari lotuak (Infraestructura offshore para el ensayo y desarrollo tecnológico de energías renovables e hidrógeno eta Energy Intelligence Center). Biek dute helburu offshore berriztagarrien garapena, adibidez. Indarrak batu eta Energia Inteligentzia Zentro bakarraren aldeko apustua egin beharko litzatekeela deritzogu. Offshore berriztagarrien garapena litzateke ikerketa-ildo nagusietako bat, sare elektriko adimendunari esker lor daitezkeen aplikazioak beste bat. Eta, oro har, TRL altuenetako teknologien garapena.

Mugikortasun jasangarria

Bi helburu estrategiko proposatzen ditugu mugikortasun jasangarria garatzeko. Lehena biltegiatzea, eta bigarrena mugikortasun elektriko adimendunaren garapena.

HE9: Biltegiatzea sustatu

13. Basquevolt Gigafactory. Ontzat jotzen dugu proiektu hau. Bat dator guk proposatutako A4 proiektuarekin.

14. Movilidad eléctrica: Battery Pack Multimobility eta Battery packs & Mubil: Fábrica de diseño y producción de baterías dirigida a sectores de alto crecimiento proiektuak ontzat jotzen ditugu, baina beti ere bien arteko sinergiak bilatu beharko liratekeela deritzogu. Are gehiago bi proiektu hauen eta Basquevolt Gigafactory proiektuen artean kooperazio ekosistema bat eraiki beharko litzateke.

HE10: Mugikortasun elektriko adimenduna garatu

15. Mugikortasun elektrikoa garraiobide guztietan gauzatzeko programa integrala (A3.1). Gure proposamenean jasotzen dena. Tren azpiegituren egokitzapenei lotutako proiektuak mugikortasun elektrikoa garatzeko programa integral baten baitan txertatu beharko liratekeela deritzogu.

16. Mugikortasun adimendunaren garapen eta berrikuntzarako huba. Gure proposamenean jasotzen den Mugikortasun Adimendunaren Softwarearen Garapen eta Berrikuntza Hubaren ideiak (A3.2) koherentzia estrategikoa ematen lagun diezaioke Basque CCAM LAB, Polo MUBIL, Centro de automoción avanzada en automoción industria 4.0 proiektuen arteko lankidetzari.

Administrazioen, enpresen eta balio-kateen digitalizazioa eta berrikuntza

Hiru helburu estrategiko bereizten ditugu konponente honetan: Trantsizio digitalerako azpiegitura garatzea, aro digitalean hizkuntza eta kultura sustatzea eta berrikuntza soziala bultzatzea.

HE11: Trantsizio digitalerako azpiegitura garatu

17. Adimen Artifiziala, Robotizazioa eta Sistema Aurreratuen Kolaborazio Irekiko Hub Europarra (C6). Gure proposamenean jasotzen dena. Egitasmo hau Euskadi Nextek proposatzen dituen bi proiektuekin korrespondentzia ikusten dugu: Basque Research & Technology alliance (BRTA) eta Centro Vasco de Inteligencia Artificial (BAIC). Bi proiektuen arteko sinergiak bilatu eta ikuspegi estrategikoa definitzen laguntzen duelakoan gaude.

18. Gipuzkoa Quantum. Ontzat jotzen dugu proiektu hau.

19. Teknologia aurreratuetan gaikuntza sozialerako proiektua (B2). Funtsezkotzat jotzen dugun proiektua. Azpimarra egiten diogu proiektu honen bidez AAK gizartean ekarriko dituen aldaketen gaineko ikerketa egingo lukeen institutu bat sortzeari. Institutu honek lan merkatuan, enpresan, hezkuntzan, osasungintzan eta bizitzaren bestelako eremuetan AAK izango duen eragina aztertuko luke, eta mehatxuak neutralizatu eta aukerak probesteko proposamenak landuko lituzke.

20. Green Cloud Data Processing Centre (B3). Euskadi Nextek proposatzen duen Data Center proiektuarekin korrespondentzia ikusten dugu. Lankidetza publiko-pribatuaren terminoak argitu beharko lirateke: Administrazio publikoak inork datuen erabilera pribaturik egiten ez duela ziurtatu behar du.

21. Software libreko eta ezagutza partekatuko lankidetza ekosistema (B4). Gure proposamenean jasotzen dena.

22. Administrazioaren digitalizaziorako programa (B5). Gure proposamenean jasotzen dugun programa honen barnean kokatzen ditugu Euskadi Nextek administrazioaren digitalizazioari begira proposatzen dituen proiektuak.

23. Identitate burujabea eta datuen burujabetza (B6). Gure proposamenean jasotzen dena.

24. Zibersegurtasuneko zentro koordinatu bakarra (B7). BSCS eta ZIUR zentroen arteko fusioa izango litzatekeena.

HE12: Hizkuntza eta kultura sustatu aro digitalean

25. Natural Language Processingen garapenerako erreferentziazko gunea (B8). Gure proposamenean jasotzen dena.

26. Hizkuntza gutxiak eta industria kulturala (B9). Gure proposamenean jasotzen dena.

27. Kultur eta sormen industriei zuzendutako berrikuntza programa (C11.1). Euskadi Nextek proposatzen duen KSITek programaren eta SZN-TEK proiektuekin korrespondentzia egon daiteke.

28. Euskarazko kulturgintzaren plaza digitala (C11.2). Gure proposamenean jasotzen dena.

HE13: Gizarte Berrikuntza bultzatu

29. Berrikuntza Sozialerako Laborategia (C8). Gure proposamenean jasotzen dena.

30. Elikadura programa: Farm to Fork (C9). Gure proposamenean jasotzen dena.

Hiri-habitata

HE14: Hiriguneen eraberritzea sustatu

31. Regeneración Urbana Integral en ámbitos vulnerables de la CAPV. Euskadi Nextek proposatzen duen proiektu honekiko korrespondentzia ikusten dugu gure proposamenean bildutako bi egitasmorekin: Industrialde eta lantegi kutsatuen eraberritze programa (A6) eta 1960-70eko auzoen eraberritze programa (A7).

32. Efizientzia energetikorako programa (A1). Gure proposamenean zein Euskadi Nexten jasotzen dena.

33. Programa Renove de Rehabilitación Integral de Viviendas y Edificios Residenciales. Ontzat jotzen dugu programa hau.

Habitat naturala eta hondamendi naturalen prebentzioa

HE15: Klima aldaketari eta biodibertsitatearen galerari aurre egin

34. Ur hornidura eta arazketa (A8). Gure proposamenean jasotzen dena. Korrespondentzia ikusten dugu Euskadi Nextek gai honi buruz proposatzen dituen proiektuekin.

35. Klima aldaketari eta biodibertsitate galerari aurre egiteko programa (A9). Gure proposamenean jasotzen dena. Korrespondentzia ikusten ditugu Euskadi Nextek gai honi buruz proposatzen dituenekin.

36. Resiliencia a desastres naturales (RESINA). Ontzat jotzen dugu proiektu hau eta adostasunerako proposatzen den bigarren proiektuarekin (Emerbentzien Arretarako Agentzia) sinergiak eraiki beharko liratekeela deritzogu.

Ekonomia zirkularra

HE16: Ekonomia zirkularraren garapena

37. Material kritikoak berreskuratzeko planta (A5.1). Gure proposamenean jasotzen dena, zeinak Euskadi Nextek proposatzen duen Polo industrial de recuperación de tierras raras y fabricación de imanes permanentes a través de fabricación aditiva para vehículo eléctrico (Mugikortasun jasangarria konponentean) proiektuarekin korrespondentzia izan dezakeena.

38. Hondakin industrialen kudeaketarako planta (A5.2). Gure proposamenean jasotzen dena.

6. Azken hitza

NG funtsek ariketa arduratsu bat egitea eskatzen dute, instituzioak eta eragile politiko, sozial eta ekonomiko nagusiak barnebiduko dituen goi mailako ariketa politiko bat, bakoitzak bere proposamen eta hausnarketak mahai gainean jarrita, NG programarekin finantzatu beharreko proiektu estrategikoak zeintzuk behar duten eztabaidatu ahal izateko.

Tamalez, orain arte ezinezkoa izan da ariketa hori. EAJk eta PSEk muzin egin diote sistematikoki elkarlanean aritzeari. Jarrera horren azken adibidea abenduaren 16ko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ikusi genuen, EH Bilduk eskatuta egin zen bilkura monografikoan. Oposizioko taldeok 96 proposamen aurkeztu genituen. Bat bakarrik, PPrena, onartu zuten gobernuko alderdiek. NG funtsei dagokien prozesua ezin ilunagoa izaten ari da, instituzioak eta botere publikoa modu alderdikioan ulertzearen adibide argia.

Garaiz gaude oraindik. Iragan abenduaren 29an Jaurlaritzak NG funtsekin finantzatu nahiko lituzkeen proiektuen zerrenda bidali zion espainiar gobernari. Prozesua, dena den, ez da hor amaitu, luze joko du oraindik. Negoziaketa prozesu bat gertatuko da Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean, eta beharrezko deritzogu negoziaketa horretan oinarritzko adostasuna bilatzea.

Zentzu horretan, EH Bilduk bere ekarpena egin nahi dio euskal gizarteari, dokumentu honetan aurkezten dugun hau. Batetik, datorren hamarraldiari begira, garaiko erronkei erreparatuz, gure iritziz estrategikoak diren eta, beraz, NG funtsekin finantzatu beharko liratekeen proiektuak ondu ditugu. Eta bestetik, gure proposamenak eta Euskadi Nextek jasotzen dituenak erkatuz, adostasun-eremu bat definitzeko ahalegina egin dugu, askotan azpimarratu dugun legez, ezinbestekoa baiteritzogu adostasun estrategiko bat erdiestea NG funtsek ekarriko duten inbertsioaren gainean.

Dokumentu hau azken hilabeteotako lanaren emaitza da: maila instituzional guztietan, udaletan bereziki, landu duguna, eta eragile sozial eta ekonomiko askotarikoen ekarpenak ere jaso dituen. Finean, ariketa arduratsu bat egin nahi izan dugu.

Hasi bezala bukatu nahi dugu: Eztabaida aberastu eta adostasun garrantzitsu bat eraikitzeko borondatez eginiko proposamena da honako hau, ez inoren kontra. Arduraz joka dezagun denok ala denok, asko dago jokoan eta. EH Bilduk bere konpromisoa berresten du beste behin ere.

Eranskina:

Adostasun baterako egitasmoen taula

Konponentea	Helburu estrategikoa	Egitasmoa
Pertsonen osasuna eta zaintza	HE1: Osasun larrialdiei aurre egiteko azpiegitura garatu	1. Osasunberri
		2. Emergentzien Arretarako Agentzia (C3)
		3. Produktu farmazeutikoen ikerketa, fabrikazio eta hornikuntzarako poloa (C4)
	HE2: Osasun sistema digitalizatu	4. Osakidetzaren digitalizazioa (C1)
	HE3: Lehen mailako osasun arreta egokitu	5. Lehen arreta egokitzeko proiektu estrategikoa (C2)
Bizialdi osorako ikaskuntza	HE4: Zaintza sistema publikoaren oinarriak finkatu	6. Gizartekintza (C5)
	HE5: Arrakala digitalari aurre egin	7. Gaikuntza digital unibertsalerako plana (B1)
Energia berriztagarrien sorkuntza	HE6: Langileak birgaitu (upskillig eta reskilling)	8. Enplegu Duin eta Kalitatezkoaren Adimen Zentroa (C7)
	HE7: Energiaren sorkuntza banatua sustatu HE8: Energia berriztagarriak ikertu eta garatu	9. Energia berriztagarrien garapen banatua (A2)
		10. Hub Industrial y Tecnológico de Eólica Flotante
		11. Iberlyzer
Mugikortasun jasagarria	HE9: Biltegitratzea sustatu	12. Energiaren Inteligentzia Zentroa
		13. Basquevolt Gigafactory
	HE10: Mugikortasun elektriko adimenduna garatu	14. Movilidad eléctrica: Battery Pack Multimobility eta Battery packs & Mubil
		15. Mugikortasun elektrikoa garraiobide guztietan gauzatzeko programa integrala (A3.1)
		16. Mugikortasun adimendunaren garapen eta berrikuntzarako huba

Eranskina:

Adostasun baterako egitasmoen taula

Konponentea	Helburu estrategikoa	Egitasmoa
Adminis- trazioen, enpresen eta balio-kateen digitalizazioa eta berrikuntza	HE11: Trantsizio digitalerako azpiegitura garatu	17. Adimen Artifiziala, Robotizazioa eta Sistema Aurreratuen Kolaborazio Irekiko Hub Europarra (C6)
		18. Gipuzkoa Quantum
		19. Teknologia aurreratueta gaikuntza sozialerako proiektua (B2)
		20. Green Cloud Data Processing Centre (B3)
		21. Software libreko eta ezagutza partekatuko lankidetzako ekosistema (B4)
		22. Administrazioaren digitalizaziorako programa (B5)
		23. Identitate burujabea eta datuen burujabetza (B6)
		24. Zibersegurtasuneko zentro koordinatu bakarra (B7)
	HE12: Hizkuntza eta kultura sustatu aro digitalean	25. Natural Language Processingen garapenerako erreferentziatzeko gunea (B8)
		26. Hizkuntza gutxituak eta industria kulturala (B9)
		27. Kultur eta sormen industriei zuzendutako berrikuntza programa (C11.1)
		28. Euskarazko kulturgintzaren plaza digitala (C11.2)
	HE13: Gizarte Berrikuntza bultzatu	29. Berrikuntza Sozialerako Laborategia (C8)
		30. Elikadura programa: Farm to Fork (C9)

Eranskina:

Adostasun baterako egitasmoen taula

Konponentea	Helburu estrategikoa	Egitasmoa
Hiri-habitata	HE14: Hiriguneen eraberritzea sustatu	31. Regeneración Urbana Integral en ámbitos vulnerables de la CAPV
		32. Efizientzia energetikorako programa (A1)
		33. Programa Renove de Rehabilitación Integral de Viviendas y Edificios Residenciales
Habitat naturala eta hondamendi naturalen prebentzioa	HE15: Klima aldatetari eta biodibertsitatearen galerari aurre egin	34. Ur hornidura eta arazketa (A8)
		35. Klima aldatetari eta biodibertsitate galerari aurre egiteko programa (A9)
		36. Resiliencia a desastres naturales (RESI-NA)
Ekonomia zirkularra	HE16: Ekonomia zirkularraren garapena	37. Material kritikoak berreskuratzeko planta (A5.1)
		38. Hondakin industrialen kudeaketarako planta (A5.2)